



Sara Korrika Trail
martxoaren 26an
→ 39

2017ko martxoaren 23a | XXXVII. urtea | 682. zenbakia

Hiri hondakinak
Neguan egindako konposta
banatuko dute
→ 16

LESAKA → 12
Haur kantarien jaialdia
martxoaren 25ean

SUNBILLA → 17
Asteburu kulturala
martxoaren 24tik 26ra

KULTURA → 27
'Irakurri, gozatu eta oparitu'
Malerrekan eta Leitzaldean

LEITZA → 28
Ekitaldi ugari eta anitzak
Ateka Astearen baitan



ARGAZKIA: OSCAR J. BARROSO

Irriaren indarra

ERREPORTAJEA → 3-5

Haurren %2ari eragiten dio minbiziak eta urtero 14 kasu diagnostikatzen dira Nafarroan. Kolpe handia da albistea jasotzea, eta egun batetik bertara borrokari eman behar diote hasiera. Minbizia bertatik-bertara bizi duten bi familiekin bildu da TTI-PI-TTAPA, 10 urte dituen Elgorriagako Maitane Mariezkurrena Migeltorena eta 8 urteko Elizondoko Naroa Etxaide Ballarenaren

familiarekin, hain zuzen. Aitortu digutenez, gogorra izan da bidea, baina zorionez, gainditu dute gaixotasuna. Bi familiak ADANO Minbizia duten Haurren Aldeko Nafarroako Elkarteko kideak dira eta horren bitartez, joan den urtean egindako *Navidad Adano* film laburrean agertu ziren Maitane eta Naroa, argazkian beraiekin batera ageri den Elenarekin batera.

Esne sektorearen egoera salatzen manifestazioa apirilaren 1ean Elizondon → 31



Hemen da Korrika!

Batzuk lelopean martxoaren 30ean hasiko da aurtun 20. edizioa beteko duen Korrika eta apirilaren 9ra bitarte, Euskal Herriko zazpi herrialdeetan barna 2.535 kilometro eginen ditu euskararen aldeko lasterketa haundiak. Apirilaren 3an pasako da Korrika gure eskualdetik: gauerdian Sara aldetik eta arratsalde eta gauean Baztan eta Malerrekatik.

→ 40

ESKUALDEA → 10 Erabaki askeko 1,4 milioi euro udal eta kontzejuentzat

Nafarroako Gobernuak 2017tik 2019ra bitartean banatuko ditu, eta bakoitzak erabakiko du zertarako bideratuko duen diru hori.

ZOKKETAK → 52



Txartela egiteko deitu
948 63 54 58ra edo
idatzi **info@ttipi.eus**
helbidera.

Txikien II. Azoka

Gipuzkoa FICOPA • IRUN 2017

Haurdunalditik haurra izateraino 2017

Martxoaren 31tik apirilaren 2ra

Ostirala

16:30 - 20:30

Larunbata eta Igandea

11:00 - 14:00

16:30 - 20:30

Sarrera
2€
12 urterarte doan



Erakusketa eta Salmenta,
Tailerrak, Aitzaldiak, Haur aisialdi gunea,
Jolasak, Zozketak, Opariak...

Antolatzailea:

sofeven Tlf: 625 712 541
@: eventos@sofeven.net



Muntaia:

Stands
Navarra, S.L

www.txiki.ficoba.org

ALMACO BAZTAN

www.almacobaztan.com

GRUP **GAMMA**

Berritu zure etxea!

... erne egon!
laster barbakoan
eskaintza!



Ekarri neurriak eta guk aurrekontuak eta proiektuak konpromisorik gabe eginen dizkizuegu! ...denetarik daukagu eta eskaintza arras interesgarriak!!

Errepide nagusia, Elizondo

Tel. 948 580 104 Fax. 948 581 857

GIZARTEA → HAURREN MINBIZIA

Gorputz ttikian gerlari handiak

Haurren %2ari eragiten dio minbiziak

Minbizia entzundakoan nekez datorkigu burura haur baten irudia, baina urtero 14 kasu berri diagnostikatzen dira Nafarroan. Eritasunak isilean egiten du lana eta ezustean jasotzen da albistea; egun batetik bertara borrokari hasiera emanaz. Eritasun hau hurbiletik bizi duten bi familiekin bildu da TTIPI-TTAPA eta Elizondoko Naroa Etxaide eta Elgorriagako Maitane Mariezkurrenaren irribareek duten indarraren lekuko izan da.

Eneritz IRAOLA

«Ez dakigu zeinen indartsuak garen, indartsu izatea suertatzen zaigun arte» diote *Navidad Adano* film laburrean. Eta Maitane eta Naroaren gurasoek ere hala azaldu dute: «beharra dagoenean, ez dagoen tokitik ere ateratzen da indarra».

Eritasunak haurren %2ari eragiten dio eta kopurua hain ttikia izanik «ez zaizu burutik pasatzen». Horregatik, haurrak zer zuen erran zientean erabateko harri-dura sentitu zutela dio-

te bi familiek «gordin-gordinean erraten dizute. Ordura arte zure kezka handiena haurra agian ingresa egiten dutela da, pare bat egunez bertan egon beharko duela». Minbizia aipatutakoan, ordea, «gurpila gelditu egiten da. Aste betez, mundua gelditzen da eta gero pixkanaka bueltan zator. Datorrenaz jabetu, hurbilekoei kontatu... eta aitzinera egin».

Diagnostikoa jakindakoan, guztiz zehaztua dagoen protokolo bati ematen diote hasiera «pau-



ARGAZKIA: OSCAR J. BARROSO

Navidad Adano film laburrean parte hartu dute Naroa eta Maitanek.

so guztiak zehaztuta daude eta horrek ez dizu aukerarik ematen pentsatzeko. Gustatu edo ez, hori da egin beharrekoa». Kimioa, radioa, ebakuntza... gogorra izan da orain arte egin duten bidea baina bai Naroak eta baita Maitanek ere, albiste onak jaso dituzte berriki «gorputzean zelula txarrik ez dagoela

erran digute eta oso pozik gaude».

Hilabete hauek «intentsoak» izan dira, baina, tartean, momentu gozoak ere bizi izan dituzte «ospitaleko bosgarren solairuan eguneko egaitza bat dago eta bertan elkartzen gara haurrak, gurasoak, medikuak, erizainak... familia moduko bat osatu dugu guztiok».

ADANOko boluntarioen lana ere azpimarratu dute «lehenbiziko momentu ondoan daude, babesa ematen dizute, laguntza...» eta hurrei ere badakite ilusioa pizten «Eguberrietan bisitak, jaialdiak, film laburrean parte hartzeko aukera... Egunerokoa ahazten laguntzen dieten energia dosiak dira».

BABESA

«Zuk egin behar diozu aurre datorkizunari baina babestua sentitzea garrantzitsua da»

Alajo ETXAIDE
Naroaren aita

BABESA

«Eri dago baina haur bat izateari ez dio uzten, inozentzia hori du eta eskerrak hala den»

Oihana MIGELTORENA
Maitaneren ama

ADANO ELKARTEAREN LAGUNTZA

Eri dauden haurren eta euren familien bizi-kalitatea hobetzeko helburuarekin sortu zen Minbizia duten Haurren Aldeko Nafarroako Elkarteak. Javier Molinak, Iruñeko Virgen del Camino ospitaleko medikuak, jarri zuen abian eta gaur egun ospitalean bertan eskaintzen dute zerbitzua elkarteko psikologo eta gizarte langileak. Horiekin batera, boluntarioak dira ardatza. Astelehenetik ortziralera, goiz eta arratsalde, ospitalera joaten dira haurrak bisitatzera eta irteerak, jaialdiak, udako kanpaldiak... antolatzen dituzte.

2016an egindako ekintzen artean, *Navidad Adano* film laburra azpimarratu behar da. Oscar J. Barrosok zuzendutako lanean, minbizia duten ADANO elkarteko hiru haur izan dira protagonistak, Elena eta eskualdeko Naroa eta Maitane. Adano elkartearen web orrian ikus liteke osorik.

ETXAIDE BALLARENA familia

«Haurra ongi sentitzen denean jostetan edo irriz ikusten duzu, oraina bizi dute, bihar zer datorren berdin du»

NAROA
8 urte
(Elizondo)

Bitan jo du eritasunak beraien atea «lehenbiziko aldia, 2014ko irailaren 28an izan zen. Urritik abendura arteko tartea gogorra izan zen baina eboluzioa ona zela eta haurrak tratamendua aguantatzen zuela ikusten genuenez, hobeto generaman. Urte eta piku borrokan eman ondotik, berriz ere gaixorik zegoela aditzea izan zen gogorrena» azaldu dute Alejo Etxaidek eta Roxa Ballarenak, Naroaren gurasoek.

Bortz urte zituen Naroak Hodking linfoma diagnostikatu ziotenean «berehala ikusi zuten tu-

morea ez zela ona eta tratamendurekin hasi beharra zegoela».

HAURRARI KONTATZEA

Haurrekin hasmentatik gaiari buruz solas egiteko gomendatu zieten: «Adanokoez liburu bat eman ziguten eta Naroari kontatzen joan ginen. Hartz medikuaren istorioa zen. Haurrentzako egokiak diren hitzak erabiliz kontatzen dizu eritasun bat duela, ez dela katarro bat bezalako... gogorragoa dela eta sendatzeko emanen dioten medikamentuak zelula txarrak desagerraraziko dituela baina onak ere bai». Liburuak gertatzen ari zitzaiona ulertzen lagundu zion Naroari, «gauzak galdetzen zizkigun... baliagarria izan zen



beretzat». Dena den, Alejo dio ez dela erraza alabarekin gaiaz mintzatzea «gaizki zegoenean galdetu izan dit: 'eritasun honenkin jendea hil egiten da?' Hori alabaren ahotik entzutea gogorra da. Erantzun bat eman beharra diozu. Baietz erantzun nion, baina aunitz direla sendatzen direnak». Ahizpa eta anaia ditu Naroak eta zaharrenarekin ipuinak ez zuen balio izan: «berak gehiago jakin nahi zuen».

FAMILIA GUZTIARI ERAGIN

Izan ere, ez da atzendu behar eritasuna Naroak izan arren, familia guztiari eragiten diola «hiru seme-alaba ditugu eta egunerokoan aldaketak gertatzen dira. Ordurarte guztiok beti elkarrekin geunden. Ingresoak, mediku-azterketak... zirela

«Horrelako zerbait bizi ondotik, arazoak erlatibizatzen ikasten duzu, detaile tikiiez gozatzen. Lehen ikaragarria iruditzen zitzaizun, orain ez».

eta erabat elkarrekin ezin egon hori arras gogorra izan zen niretzat» azaldu du Roxak.

«Ez dakit nola posible duzun' erran izan digute. Ez dugu bertze aukerarik. Ez da aukera bat, gogorra izan behar duzu eta kitto».

GAIXOTASUNARI AURRE EGITEKO JARRERA

Gaixotasunari aurre egiteko garaian gauzak aunitz erraztu ditu Naroaren izaerak «alaia da, bizi, umore onekoa eta haurra izan arren, gogorra». Kimioa hartu ondotik, bere buruari erronka jartzen zion Naroak «kimioaren eraginez belau-netako indarra galdu egiten da. Gurpildun aulkian mugitzeko aukera ematen dizute orduan, baina berak ezetz erraten zien. Oinez joaten zen, ahal zuen bezala, baina oinez. Guri hori ikusteak indarra ematen zigun».

2015eko ekainean erran zieten guztia ongi zegoela baina abendua- ren 22an berriz ere gai-

xorik zegoela jakin zuten «kolpea izan zen guztiontzat». Prozesua bera ere gogorragoa izan da bigarren aldi honetan «ez zelako dena lehenbizikotik ongi joan, bidetik atetara gabe. Tratamendubatekin eta bertzearekin saiatzen ziren baina ez zuen hobera egiten. Zortea izan genuen, azken aukerak funtzionatu egin zuelako». 2016ko irailaren 5ean hartu zuten berri ona «dena ongi zegoela erran ziguten. Irailaren 23an autotransplante bat egin zioten ziurtatzeko eta gerora egindako azterketa guztiak ongi dagoela diote. Maiatzera arte medikamentua hartzen segiko du, arriskuak ekiditeko». Eta gero, normaltasunera itzultzeko aukera izanen du «bi urte daramatza borroka honetan eta milaka plan ditu buruan».

Bizitza egokitu zaiona gogorra izan arren, aurpegiko irribarrea ez zaie itzaltzen gauzak solas egiterakoan «gauza txarrak burutik ezabatzen dituzu eta onekin gelditzen zara».



ARGAZKIA: OSCAR J.BARROSO

MARIEZKURRENA MIGELTORENA familia

«Konturatzen zara ez dela kasu bakana, asko direla, ez dakigula zein mundutan bizi garen guri tokatzen zaigun arte»

MAITANE
10 urte
(Elgorriaga)

2016ko uztailaren 29a memorian iltzatua du Oihana Migeltorenak, Maitaneren amak. Ez zuten zetorrena susmatzerik izan «primeran zegoen, jolasean ari zen eta bat-batean mina zuela erranez hasi zen. Ez da erraz kexaka hasten den horietakoa. Nabaritu nion min handia zuela eta kezkatu egin nintzen. Doneztebeko Osasun Etxera joan ginen eta handik Iruñera bidali gintuzten froga batzuk egitera». Hura izan zen prozesu honetan guztian Maitanek mina sentitu duen aldi bakarra «gorputzak emandako seinale bat

izan zen eta guk ere hala erreazionatu genuen. Bertze batzuetan lasaitzeko, pasako dela, erran izan nion. Baina, orduan horrela jokatu nuen; ez dakit zergatik».

Froga desberdinak egin zizkieten Iruñean eta berehala erran zieten zer zen gertatzen zena «tumor bat zuela eta ona edo txarra zen ikusi behar zela. Harrituak gelditu ginen, ezin sinetsiz. Edozer pentsa genezakeen baina hori ez. Gure burua nolabait kontrola-

«Hilabeteak izan dira, baina urteak dirudite. Oso intentsoa izan da. Familia eta lagunei emandako laguntza guztiagatik eskerrak eman nahi dizkiet»



ARGAZKIA: OSCAR J. BARROSO

tzen saiatu ginen Maitane gurekin zegoelako, baina kolpea izugarria izan zen». Zenbait azterketa egin ondotik etorri zen diagnostiko zehatza «neuroblastoma bat zuela erran ziguten eta aurre egiteko modu bakarra ebakuntza bat egitea zela». Horretarako, ordea, tumoreak tamainaz tiki-tu behar zuen, «ebakuntzara ahalik eta baldintza hobereanean iristeko».

GORPUTZAREN ETA BURUAREN INDARRA

Kimioarekin hasi ziren orduan eta fisikoki ongi eutsi zion: «neska gogorra izan da beti Maitane eta erraz ematen zion buelta. Ospitaletik gaizki etortzen zen, jateko gogorik gabe eta goitika eginez baina bi egunean hobera egin eta sesio batek bertzerako tartean, gal-

«Garrantzitsua da ahal den neurrian normaltasunari eustea. Bizitzak aitzinera jarraitzen du, parentesi bat da eta gero lehengora bueltatu behar du».

tzen zuen pisua berresturatzen zuen». Fisikoki soilik ez, emozionalki ere gogorra dela erakutsi die «ez du sekula negarrik egin froga bat edo bertzea egin behar ziotelako. 'Zertarako kexatu behar dut berdin-berdin egin behar badidate?' erran izan digu behin baino gehiagotan». Ilea galdu zue-nean ere berdin, «errateko beldurrez nintzen eta orduan ere lekzioa eman zidan, 'gero berriz ilea hazten zaidanean ilea hori eta lisoa izanen dut igual' erantzun zidan».

«'Zertarako kexatu behar dut berdin-berdin egin behar badidate?' erran izan digu behin baino gehiagotan».

Hamar urte zituen eritasuna diagnostikatu ziotenean eta hori erabakiorra izan da Oihanaren ustez «haur bat da oraindik, inozentzia hori du eta eskerrak. Bi urte beranduago gertatu izan balitz desberdina izanen zela uste dut. Nerabazaroko aldaketa eta...».

Urtarrilean egin zioten ebakuntza «Valentziako ospitalean, han gurea bezalako kasuetan espezializatutako talde bat dutelako eta hagitz ongi joan zen guztia». Radioko sesio batzuk hartu ditu gero eta hilabete guttiren buruan, «berrito ere normaltasunera bueltatu ahal izanen dugu». Nahiz eta aitortu duen: «buruak ez du atsedetik hartzen. Betti nago alertan».

ETA SENDATZEAN ZER?

Orain artean eskolako erritmoari eutsi dio eta amaren ustez, unean bertan eta etorkizunerako garrantzitsua izan da hori beretzat «bertze gauza batzuen aurka ezin duzu deus egin baina normaltasun horri eustea bada-gure esku». Psikologikoki garrantzitsua da bere ustez: «lagunekin hitz egiten duenean, gauza berak ikasten ari direla ikustea, haiekin kontaktuan segitzea...ez da ahaztu behar bizitzak aitzinera jarraitzen duela eta parentesi honen ondotik, lehengora bueltatu behar duela».



ARGAZKIA: OSCAR J. BARROSO

**Nire txanda**

Jon ABRIL

Iparra galduta


Ttipi-ttapak eskualde zabala hartzen du bere baitan. Leizatik hasi eta Senpererat. Saratik Erratzurat, Aresotik Berarat. Eta hala ere, anitzetan, Bortzirietatik zeinen urrun sentitzen ditugun Sara eta Leitza. Aspalditik ezaguna da Hegoaldeko biztanleek badugula Cadizen gertatzen denaz berri gehiago Baionan gertatzen denaz baino. Eta saratarak hobeki ezagutzen dituela Lyongoak Tuterakoak baino. Hegoaldeko edo nork izendatuko ditugu Espainiako zazpi aktore, idazle, kantari, futbolari edo txutxu-mutxutako programetako protagonistak, eta kostata erranen dugu Frantziako bakar bat. Muga gure baitan dagoea bistakoa da. Berriki irakurri diot Hedoi Etxarteri: «muga bat gainditzeko kontrapisu bat jarri behar dela, ezinbestean», eta «egun, Euskal Errepublikaren alde egin nahi duen Hegoaldekoak Frantzia aztertu behar lukeela. Eta Iparraldekoak Espainia. Eta Hegoaldeko zein Iparraldeko egi astunetako bat da, biak daudela beste zentro batzuetako dinamiken menpe». Ez zaio arrazoirik falta. Aspaldian, iparra galduta gabiltza.

Ezpala

Aitor AROTZENA

Euskalduna naiz, eta zu?

Buenooo! Politak jarri dira espainiarrak ETB-ko saio batean, umorez, txoni, kateto, fatxa edo progretzat jo dituztenean. Euskaldunei bai, topiko guziak ezarri ahal zaizkie, zortzi abizen euskaldun dituztenek *kale borrikan* sueto aritzeaz gain, ez dute gazteleraz egoki solasterik, haznahia sortzen die Madril zanpatzeak, aizkoraz mozten dute ilea eta 47 platerako menua jaten dute...

NabarmentzekoakJon OLAIZOLA
Euskal ligan txapeldun

Senior mailan, Euskal Ligako buruz buruko txapelketa irabazi zuen pilotari lesakarrak martxoaren 12an Mungian. 22-14 irabazi zion finalean Txukun Lakuako Madariaga bizkaitarrari.

Pantxika URRUTI
Karmen Etxalarkoa zuzenduz

Karmen Etxalarkoa pasatorala prestatzen hasi dira Etxalarren, irailaren 16 eta 17an eskaintzeko. Zuberoko emakumea ari da ehun antzezle baino gehiago bilduko dituen lana gidatzen.

Pantaleon ERRANDONEA
Arantzan omendua

Arantzako Udalak bigarren urtez antolatutako trikitixa jaialdian omen-du zuten kirolari, zinegotzi, mendi-mutil, bandera dantzari, Ekaitza elkar-teko eta kooperatibako sortzaile izandakoa.

Atzera begira → 2007-III-15 TTIPI-TTAPA 442 zk.**Reyno de Navarra saria Hiruak Bat elkarteari**

Nafarroako turismoaren sektorea garatzen egindako lana eskertzeko Nafarroako Turismo Kontseiluak emandako *Reyno de Navarra* saria jaso zuen duela hamar urte Berako Olaseneko Borda landetxeko nagusi eta garai hartan Hiruak Bat Federazioko presidente zen Sagrario Goñik. «Niretzat saririk handiena Hiruak Bat elkarteko landetxeak astebururo betetzen direla jakitea izanen litzake» zioen Goñik. Harridura ere eragin zion honelako saria gure ingurura ekarteak, izan ere «kontseilu horretako 22 kideetatik gehienak Erribera aldekoak dira, horregatik saria mendialdera etorriko zela jakiteak harritu samar utzi ninduen».



Argitaratzailea Ttipi-Ttapa Fundazioa • Egoitza Koskontako bidea, 07-1 • 31770 LESAKA
Tel. (+34) 948 635458 • Faxe (+34) 948 635457 • whatsapp: 744 484361 • info@ttipi.eus

Zuzendaria Aitor Arotzena Erredakzioa Gurutze Pikabea, Eneritz Iraola Publizitatea Usoa Vicente, Amaia Odriozola, Arantza Agirre Berriemaileak Juana Mari Saizar, Ainhoa eta Maider Ansa, Arkaitz Mindegia, Franck Dolosor, Josebiñe Agirre, Koro Iratzoki, Nerea Altzuri, Joseba Urrotz, Irune eta Itsaso Elizagoien, Maider Petrirena, Markel Lizasoain, Fermin Etxekolonea, Fernando Etxeberria, Joana Guerendiain, Martin Bertiz, Mattin Larralde, Juan Mari Barriola, Joxean Ortega, Iñigo Imaz, Marga Erdozain

Fundazioaren Presidentea Pello Apezetxea Kudeatzailea Joxemanuel Irigoien Administrazioa Amaia Goia

Lege Gordailua NA-1324/85 • ISSN 1578-4673 • Tirada 6.000 ale

Erakunde laguntzaileak Leitza, Goizueta, Arano, Areso, Baztan, Sara eta Senpereko udalak, Zugarramurdiko Akelarre elkart, Malerrekako Zerbitzu Mankomunitatea

2017ko harpidetza sariak

Baztan, Urdazubi eta Malerreka	36€
Leitza	22€
Hego Euskal Herria	42€
Ipar Euskal Herria, Europa	75€
Amerika eta Australia	130€



Nafarroako Gobernua
Gobierno de Navarra



Bortzirietako Euskara Mankomunitateak diruz lagundua



Kolaborazioak

Gehiegikeriak

Esteban IRUSTA MALLEA

Neurritasuna gainditzen duen jokabide asko dira gure artean. Gehiegikeriak, modu batekoak edo besteakoak, denok egiten ditugu bizitzan zehar. Batzuk arinak eta sarriago egiten direnak eta beste batzuk larriagoak. Era batekoak eta besteakoak zeintzuk diren, bakoitzaren arabera izaten da. Zeren gehiegikeri arin batetik hasi eta gero larria izatera pasatzen direnak ez dira gutxi izaten. Hasiara baten, neurritz kanpo jateak eta edateak, edo zigarroa erretzeak ez du ematen garrantzi handia duenik. Une batean, herriko jaiak direla eta, droga bat edo bestea probatzeak ere ez. Oso sakonki sartuta dago, jaietan neurrigabeko portaerak izan behar direla eta horretara ia behartuak sentitzen direnak. Baina jaiak izan edo ez izan, inozo hasi eta ohitura bihurtzen dira kasu askotan, menpekotasuna sortuz bizi guztirako. Horietako portaera batzuk herri askoren tradizioa izatera pasatzen dira, eta orduan ia zuzendu ezinezko ohiturak izatera bilakatzen dira. Gehiegikeri hauen ondorioak zuzen edo zeharka, denok jasaten ditugu. Lehenengo pairatzaile zuzenak menpekotasun horietan eroritakoak dira. Bere osasunarekin arazoak izaten dituzte eta beraien bizimailak muga nabarmenak. Arazoak familiara igarotzen dira, eta etxe barruko giroa, senar-emazte, guraso eta seme-alaben artekoa asko honda(tu) daiteke. Gehiegikeri batzuk gizarte guztian eragina izan dezakete, eta hala dela erakusten digute irakurri eta entzuten ari garen auto eta autobus istripuetan, gidariekin positibo eman dutela alkohola edo beste drogaren bat hartu dutela eta. Lan-istripu askoren iturburua ere gehiegikeri horietan egon daiteke, eta ez, beti, lanerako baliabide eskasietan. Kasu hauek erakusten digute, gaztetan edo beste une baten hasten diren neurrigabekeri batzuk, ezin direla arinki hartu gaztetasunaren edo askatasunaren izenean oinarrituz edo zilegituz. Pertsona helduentzat gehiegikeri askoren sorburua asteburuko eta jaietako gauetan dago. Gau tabernaz taberna ibiltzea gehiegikeria dirudi, nahiz eta azken urte luze hauetan, normaltzat hartuta dagoen, tradizio bilakatuz. Irrati kate bateko programa batean egiten duten elkarriketa bakoitzean, galdera bat hau izaten da: Zein maite duten gehiago, eguna edo gaua. Eta denek beti, eguna aukeratzen dute. Garbi dago, elkarriketatuek ez direla gaztetxoak. Dena den, normaltasuna ez dago modan. Zentzutasunezko jokaerak ez dio inori arreta sortzen. Telebistakoa albistegietan ematen diguten berri gehienak ez dira oso goxoak izaten. Portaera anormalak toki gehiago betetzen dute, normalak direnak baino. Morboak indar handia du gure gizartean. Sasoi batean, bazen egunkari edo aldizkari bat kasu bereziak, sentiberak zirenak azaltzen zituen, eta erdi ezkutuan irakurtzen zena. Gaur egun egunkari guztiak horrelako kasu gogorak, luze eta zabal ematen dituzte inolako kezkarik gabe. Adierazpen askatasunaren izenean, informazio larrienak ere, behin eta berriz, denon begibistan azaltzen dira.

Herri txikien oroipenak eta kondaira


Xanti BEGIRISTAIN MADOTZ

Gizarte honetan, pertsona guztiak historia-egileak gara, norberak bere historia egiten duelako, baina, hala ere, denok ez gara historialariak, alegia, denok ez gara historian adituak eta historia-ikerketen egileak. Horrexegatik, gehienok, oso gutxi dakigu Euskal Herriko benetako historia nagusiaz, eta, zer esanik ez, historia xeheaz. Orain dela hamarkada gutxi arte, historiaren irakaspena Madrildik edota Paristik izan da bideratua, nahi eta nahi ez, eta orain ere, neurri handi batean behinik behin, halaxe jarraitzen du izaten. Gure gizarte honetan, badaude pertsona batzuk esaten dutenak, gizakiok beti orainaldian bizi gara, eta izan ere, halaxe da, iragana dagoeneko joana baitugu, eta etorkizuna beti geroa delako. Baina, hala eta guztiz ere, etorkizuna, nolabait esateko, beti iristen zaigu, lehenago edo geroago, beti ere, jakina, bizirik diraugun neurrian. Eta iraganari buruz zer esan? Bada, nire iritziz, iraganak pertsonengan pisu ikaragarri handia duela, horrexegatik, neronek esanen nuke, egia baldin bada ere bizidunak beti bizi garelako gure orainaldian, iragana eta etorkizuna ere oso gogoan hartzeko modukoak direla.

Euskarak badauka esamolde bat honako hauxe dioena: Aurreak erakusten du atzea nola dantzatu. Bestalde ere, ezaguna da nola arraunlariak joaten diren traineruan aurreraka, baina atzerantz begira, eta, azkenik, badago ohiko beste egoera bat, munduan egunero milioika aldiz errepikatzen dena, eta hori ibilgailuak gidatzeko momentuan egiten dena da, alegia, aurrea ongi, egoki eta seguruago joateko, sarritan atzerako ispilura begiratu beharra dago, jakiteko atzean zer dugun. Honekin guztiarekin, uste dut, ohiko usadioan behintzat, oso argi eta garbi gelditzen dela, gure orainaldian eta geroan berebiziko garrantzia daukala iraganak, eta, hori dela eta, artikulu honetan tratatu nahi dugu pixka batean bada ere, azken urteotan, hainbat herri txikitan argitaratzen ari diren historia edota oroitzapen liburuak. Nik, esate baterako, oso ongi ezagutzen dut Auritz herriaren kasua, Nafarroan. Baina, dirudienek, beste herri batzuetan ere, antzeko zerbaitegiten ari omen dira, herri horien oroipena bizirik irau-narazteko, konparaziora, Garraldan, Mezkiitzen, Nagoren, eta abar.

Nire ustez, oso lan mardul, dotore eta oparoak dira, balio dutenak horko historia horiek argitarara atera eta hobeki jakin ditzagun. Nolabait esateko, orain arte ezkutatu zaiguna agerian uzteko. Izan ere, orain dela hamarkada batzuk arte, transmisio hori ahoz egiten zen, eta nahiko modu erginkorrean gainera, baina gaur egungo bizimodu moderno eta teknologia berriekin, ahozko transmisioak atzerakada arrunt handia jasan du, eta aldaketa nabarmena gertatu da: hitz asko, lanbide ugari, ohitura anitz, eta abar, hamarkada gutxiaren buruan, desagertu edota zeharo eraldatu dira. Gainera, ziur asko, aldaketa hau oraindik nabarmenagoa izan da herri txikietan hiri handietan baino.

Komikia



Irakurleak mintzo

Ez al gara oraindik esnatu?

Rake! PARDO PEREZ
(Urdazubi)

Pausetan murgiltzen garen momentuetan, uneei ihes egiteko askatasuna ematen diegunean edo orduetara egiteaz nekatzen garenean, bizitzak denboraren balioaz kontziente egiteko oparia eskaintzen digu.

Egun, opari horren ideia erabat lurperatu egin da. Pertsonoi denboraren beldur izateko hezi gaituzte, eginbeharririk ez dugun ordu horietan gure buruarekin topo egiten baitugu. Arriskutsua den zerbaite bilakatu da espazioa eta denboraren arteko talka hori; izan ere, bazarriketen esentzia gaindi dezakeen giltza bakarra hori baita; denbora bere baitan lantzea: hutsik, garbi, bakarti. Ez, ez da erraza denboran hausnartzeko ardura hartzea. Baina dagoeneko ahaztu, lokartu egin dugu berebiziko garrantzia daukan erreminta hori.

Gizartea gaixo dagoela aldarrikatzea baino, planteatu beharko genuke kolektibo horren parte diren pertsonak

daukatela eritasuna, jaiotzetik xiringatu zaien birus kutsakor horren menpe hezi eta eraiki baitute haien bizitza. Urteak pasa ahala, pertsonen hausnarketa propioak gartzeko denbora lapurtzen dien birusa belaunaldiz belaunaldi zabaltzen ari da. Gizaki eredu horrek, etengabeko ekintza aktiboetan parte hartzea neurritz kanpo baloratu du, aldi berean gelditasuna bezalako kontzeptuen estigmatizazioa barneratzen duelarik, konturatu gabe, askotan, eritasun horren propagazioa interes zabalak dituela oinarri.

Hala, laborategiko arratoiak garela ahaztu dugu, manipulableak eta baita inhibigarriak ere. Laborategiko esperimendatzailak bereziki ongi jakin izan dute arratoi garen hauentzat aurretik planifikatutako ongizate marko bat eraikitzen, non bizitzea ez den barrutik eraikitzen hastea, baizik eta merkatu zabalean eskaintzen diren estimulu fisiko zein aktiboen arabera baliario sinple eta garatu gabeen esklabo izatea.

Errazak, interesgarriak eta kandidatu onenak izan gara gorbata eta bibotedun nagusi-

entzat. Haien helburu ekonomikoak eta politika neoliberalak finkatzeko pasibo agertzeko bidea antzeman dute etengabeko aktibazio horren bitartez, gure gaitasun kritikoa zapalduz hain sinplea den barne ideia bat norbere izate eredu horretan finkatuz. Ideia hori hazi nimitz bat baino ez zen, ia ikusezina, baina ureztatuz joan ahala eboluziorik handiena jasan dezakeena. Nor garen ahaztea zen haien helburua, modu honetan askatasunez eraiki dezaketelako gure nortasunaren oinarri sendoa.

Geldiuneak berreskuratzeko gai izan behar da pertsona. Gelditasun horietan arnasa hartu eta geure buruarekin konektatzeko adorea berreskuratu behar dugu; nola edo hala, esperimenduak jarri ez dezan gelderez gure burua nekatzeko adorea da lortu beharrekoa. Galderen eta zalantzen bitartez gai izanen da gizakia nahi duena benetan zer den jakiteko, eta ez "nahi izan behar den" horrekiko konformismo itsu batean erortzeko. Orain, berebiziko garrantzia dauka norbere kritika armak bilatzen hastea, pixkanaka, pro-

zesuan etsitu gabe. Kritika armak badauzkagu, soilik lokartuta diragure izateak jasan dituen sormenaren aurkako somnifero ugarien ondorioz. Baina bai, hor daude eta anestesia egoera horretatik esnatzeko ordua dute.

Joaldunak
Aurtitzen 2017Ines GEREKA ZELAI
(Zubietako)

Joaldunak... joareak jotzen dituztenak dira. Beraien soinuarekin urteak joan urteak etorri, lurra eta bertako gizakiak neguko hotzetik esnatzen omen dituzte. Eta... inautiei hasiera eman! Inauteriak... zatarkeriak batzuentzat, basatiak besteentzat eta zoragarriak bertako gehiengoentzat.

Ni ez naiz bertakoa, ez, baina 33 urte darrazkit Zubietan bizitzen eta hasieratik barne barnetik bizi izan dut joare-soinuaren magia. Ez ditut inoiz joareak jarri, baina ez debekatu edo utzi ez didatelako. Iturenen aspaldi atera ziren bi neska, baita Zubietan ere, normaltasun osoz! Ziur nago hau ez zela denon gustukoa

izan, baina errespetu bat erakutsi zen. Mundu honetan, gustuko ez dugun zerbaite aurrean haserretu eta kontra joaten bagara... gaizki gabilta!

Aurtitzen inoiz ez da inauterietan neskarik atera izan baina aurten, bi neska atera dira! Eta nere txalo beroenak eskaini nahi dizkiet beraien ausardiagatik (eta asko izan ginen txalo jo genuenak). Zergatik errege bezperan eta asteazkenean bai... baina ez inauterietako egun ofizialean? Oso oroitzapen polita dut Aurtizko neska-talde bat beraien joareak joko inauterietako asteazken iluntzean Zubietako plazara etortzen hasi zireneko. Urtero egon izan naiz, egun horretan, beraien joare-soinuen zain...

Aurten, oraindik ere, giro nahasia omen dago Aurtitzen baina, ziur nago urak bere onera etorriko direla. Oso zaila baita ulertzea joaldunak neskak direlako soilik haserretzea! Gauza bat da ez gustatzea eta beste bat kontra joatea! Bi joaldun horiek ez diote inori kalterik egin, soilik gustuko dutena egin: joariak jo! Eta ongi jo! Berriro ere nere txalo beroenak beraiantzat!

IRAKURLEAK MINTZO Orrialde honetan ahalik eta gutun gehien kabitze aldera, ez da komeni 1.900 karaktere edo 24 lerro baino gehiagoko gutunak bidaltzea. TTIPI-TTAPAK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunarekin batera bidali beharko dira datu hauek: egilearen izen-deiturak, herria eta harremanetarako telefonoa. Egilearen izen eta abizenarekin argitaratuko dira gutunak.

e-Posta:

info@ttiipi.eus

Posta: Koskontako bidea, 07-1, 31770 LESAKA

Tel.: 948 63 54 58

Faxa: 948 63 54 57

Prentsatik bildutakoak



«Zuberoan aski eza-
gun eta zabaldua da
Pastoral. Nafarroan
sortutako bigarrena
izan da. Duela bi
urte *Joxemiel Bidador*
Pastoral taularatu
zuten Iruñean, baina
hau herri-antzerki
moduan, Zuberoan
bezala herri oso bat
mugituko duen lehena
izanen da Nafarroan.
Herriarren arteko
batasun bat eman
dezakete herri-antzer-
ki hauek».

Gerardo MUNGIA
Karmen Etxalarkoa Past.
D.NOTICIAS 2017.03.04



«Gauza bat da kamera
bat, ordenagailu bat...
izatea eta bertze bat
film bat egitea. Egia da
teknologia demokrati-
zatu dela, baina dena
ez da hain erraza.
Sortzea ez da erraza.
Gauza asko egin dai-
tezke; lehen pertsona
edo hirugarrean,
umorearekin edo kutsu
dramatikoarekin (...).
Ez dakit ona den ere
hainbertze ekoizpen
egotea. Beraz, mo-
mentuz, deskantsua».

Maite BIDAITE
Lesakako kazetaria
GAUR8 2017.03.11

11 galdera labur

Nor dugu Judit Inda?

Donamari eta Gaztelu herrien ar-
tean sortu den neska alai bat.

Zein afizio dituzu?

Motorrean ibiltzea, kontzertuak
ikustea, bestara ateratzea, nire za-
kurrearekin mendira joatea...

Bidaiatzea gustuko duzu?

Bai, eta hurrengo bidaiari Hego
Ameriketara joan nahi dut.

Bisitatu duzun tokirik gustukoena?

Leku polit eta eder aunitz ezagutu
ditut. Txoko bakoitza pertsona eta
momentu batekin identifikatzen
dut eta horrek egiten du tokia be-
rexi eta gustuko izatea.

**Zein dira zure adineko neska ba-
ten kezkak?**

Orain dela gutti arte bizi garen sis-
temak sortzen dituen beldurrak...
Gaur egun, momentua bizi dut.

**Nolako martxa du
Malerrekako Gaz-
te Asanbladak?**

Astean behin
elkartu eta gu-
re helburua
lortze-
ko



Judit INDA → Gazteluko gaztea

ekitaldiak antolatzen ditugu. Male-
rrekan gaztetxe bat irekitzea da
helburu nagusia. Asanbladak
ateak irekiak ditu edozein gaztek
parte hartu nahi badu.

**Malerreko gazteak nola ikusten di-
tuzu?**

Urtetik urtera gazteen erantzuna
ekitaldien aurrean aktiboagoa eta
hobea da. Horregatik garrantzitsua
da gaztetxe bat izatea bailaran, el-
karpuntu aproposa izan daiteke
herri desberdinetako gazteendako.

**Gazte Asanbladaren hurrengo hi-
tzordua martxoaren 25eko autode-
fentsa tailerra... Zergatik joan?**

Eraso sexistei aurre egiteko tresna
onak emanen dizkigutelako.

**Zer du faltan eta zer soberan Gazte-
luk?**

Herrian haur aunitz badira eta jolas-
teko parke baten falta sumatzen
dut. Soberan ez zait iruditzen ezer
dagoenik. Bizi garen parajeak eta
lasaitasunak ez didate aspertzen.

Gazteluko bazterrik gustukoena?

Txaruta aldera badut txoko bat ha-
gitz gustukoa, batez ere despejatu
edo pentsatzeko. Eta, nola ez, he-
rriko ostalua, bertan lagunekin eta
herriarrek gustura egoten naiz.

Amets bat?

Gerrak amaitzea. Aski da inongo
kulparik ez duen jendea kaltetzeaz.

F. LANCHAS
Akutxiladorea eta bernizatzailea
Parket eta parket flotatzailea
jartzea
Mota guztietako zolak
Tel: 948 630 735 M: 607 406 781

sarobe®
gozotegia okindegia
pº de eztegarra 25 bajo
31780 berà (navarra) t.948 63 08 99
www.sarobe.net

LABE ZAR
Tel: 948 631 076 · BERA

KATEA BIKE
BIZIKLETEN
SALMENTA
ETA
KONPONKETA.
Eta orain,
GIMNASTIKA
ETA FITNESS
MAKINAK,
bizikleta estatikoak
lasterketako zintak
2. eskuko bizikletak
Kanttonberri 1, BERA **948 631 218**
kateabera@telefonica.net
ORBEA · CANYON · SCOTT · LOOK

Alberto RETEGI
abokatu
abokatu
© 948 630 763 · Alzate, 17 · BERA

MARITX
Legia, 23-BERA Erakusketa, Proiektu eta
T. (0034) 636 617 450 Instalazio Elektrikoak

Zalain
JATETXEA · RESTAURANTE
Zalain Auzoa z/g
31780 Bera
t. 948 631 106
w. www.zalain.info

GIZARTEA

GIZARTEA → NAFARROAKO GOBERNUAK BANATUA

Erabaki askeko 1.393.946 euro jasoko dituzte eskualdeko udal eta kontzejuek

Eurek erabaki ahal izanen dute zertarako bideratuko duten bide horretatik jasotzen duten dirua

TTIPI-TTAPA

Nafarroako Gobernuak zehaztu du nola banatuko dituen erabaki askeko 23 milioi euroak 2017-2019 aldian Nafarroako udalerrien artean; toki erakundeek esku geratzen du diru hori zertara bideratuko duten erabakitzea: zenbaki gorritan duten diru-zaintzara, amortizazioetara edo inbertsioak finantzatzera. Es-

kualdeari dagokionez, udal eta kontzejuek 1.393.956,01 euro jasoko dituzte.

Toki Administrazioen Zuzendari Nagusiak Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu du ebazpena eta martxoaren 28ra arteko epea dute udal eta kontzejuek alegazioak aurkezteko.

Banatuko diren 23 milioi euroetatik 17 milioi 3.000 biztanletik gorako udalerriek jasoko dituzte; gainerako sei milioiak, berriz, 3.000 biztanle baino gutxiago dutenen eskura iritsiko dira. 4,5 milioi 2017an banatuko dira, 9,25 milioi 2018an eta bertze 9,25 milioi 2019an.

Honako hauek dira toki erakundeek erabaki askeko kontzeptuan

IZENA	POPULAZIOA	2017an	2018an	2019an	DENETARA
Arano	108			23.052,01€	23.052,01€
Arantza	638			45.950,71€	45.950,71€
Areso	260			29.619,19€	29.619,19€
Baztan	7.792			170.000,00€	170.000,00€
Belntza-Labaien	231		28.366,24€		28.366,24€
Bera	3.768		115.000,00€	35.000,00€	150.000,00€
Bertizarana	0				0,00€
Legasa	250			29.187,13€	29.187,13€
Narbarte	283			30.612,90€	30.612,90€
Oieregi	57	20.848,55€			20.848,55€
Donamaria	443		37.525,72€		37.525,72€
Doneztebe	1.658	90.019,89€			90.019,89€
Elgorriaga	219	27.847,78€			27.847,78€
Etxalar	801		52.993,14€		52.993,14€
Ezkurra	154		25.039,45€		25.039,45€
Goizueta	736		50.184,81€		50.184,81€
Igantzi	618			45.086,61€	45.086,61€
Ituren	515		40.636,48€		40.636,48€
Leitza	2.888		143.162,15€		143.162,15€
Lesaka	2.742			136.854,21€	136.854,21€
Oiz	141			24.477,78€	24.477,78€
Saldias	116			23.397,65€	23.397,65€
Sunbilla	648			46.382,76€	46.382,76€
Urdazubi	402			35.754,31€	35.754,31€
Urroz	186			26.422,01€	26.422,01€
Zubietza	323			32.341,11€	32.341,11€
Zugarramurdi	227			28.193,42€	28.193,42€
GUZTIRA	26.204	138.716,22€	492.907,99€	762.331,80€	1.393.956,01€

jasotzen dituzten ekarpenekin egin ditzaketan eragiketarak:

- 1) Aurreko ekitaldi ekonomikoko kontuen diru-zaintzako gerakin negatiboak finantzatzea.
- 2) Aurrekontuko pasibo finantzarioak aurretiaz amortizatzea.
- 3) Toki Inbertsioetarako 2009-2012 Planaren babesean emandako hasiteko baimenarekin egikaritutako obrak finantzatzea, bai eta Toki Inbertsioetarako Plan honen indarraldian zehar egikaritu beharreko obrak.
- 4) Toki Inbertsioetarako Plan honetan jasota ez dagoen eta Inbertsioen 6. Kapituluaren kontabilitate beharreko edozein jarduketara finantzatzea.

UDALERRI TTIKIAK LEHENESTEA

'Kalkulurako biztanleria' deritzon zenbatekoak banatzeko irizpidearen helburua da biztanle gutxieneko udalerriek lehentasuna ematea, eta ez biztanle kopuruaren arabera banaketa proportzional hutsa egitea. Horretarako, erakunde bakoitzak 2015eko urtarrilaren 1ean zuen biztanle kopuru ofiziala hartzen da abiapuntutzat.

Horrela, "kalkulurako biztanleria" 10 baino handiagoa denean, hurrengo ataletan aurreikusitakoaren arabera dagokion zenbatekoa aplikatzen zaio:

- 1) 3.000 biztanle baino gehiagoko udalerriak edo kontzejuek.

- 3.001 eta 5.000 biztanle artean: 150.000 euro, toki erakunde bakoitzeko.

- 5.001 eta 10.000 biztanle artean: 170.000 euro erakundeko.

- 10.000 biztanle baino gehiago: 190.000 euro, toki erakunde bakoitzeko.

2) 3.000 biztanle edo gutxiagoko udalerriak edo kontzejuek.

- 10 eta 50 biztanle artean: 20.545 euro, toki erakunde bakoitzeko.

- 51 eta 3.000 biztanle artean: biztanle kopuruaren arabera proportzionalki dagokion zenbatekoa; gutxienekoa 20.589,32 eurokoa da 51 biztanlerentzako, eta gehienezkoa 148.000 eurokoa, 3.000 biztanlerentzako.



aterpe
albergea jatetxea ostatua

T. 948 634 179
ARANTZA
www.arantza.net

LARRALDEA
eta
LINDDURRENBORDA
Baztan Bidasoako sagardotegiak

Dolarea
Eskualdean egindako sagardoa

LARRALDEA | Telleria auzoa · LEKARÓZ | 948 452121 · 626 494317
LINDDURRENBORDA | Nabaz auzoa · LESAKA | 948 637212

E D A R I A K



MANUEL TABERNA S.L.

Bidasoa, 76 - 31780 BERA (Nafarroa)
Tel.: 948 63 10 27 - Fax: 948 62 52 11
tabernabera@gmail.com
www.tabernaedariak.com

GIZARTEA → OROIMENA.BERA.EUS ATARIAN

Oroimena lantzeko atal berria abian jarri du Udalak webgunean

Plataformak herriko oroimena izanen du ardatz

TTIPI-TTAPA

Oroimena izeneko atal berria ireki du Udalak *bera.eus* web orrian (*oroimena.bera.eus*). Honetan herrian suertatutako gertaera historikoak jorratuko dira ikuspegi zabal batekin (kultura, historia, kirola, gizarte,...).

Hiru zutabe izanen ditu web orriak:

1. Egitasmoak: herriaren burutu eta burutzen ari diren egitasmoen erakuslehoa. Momentuz ondoko hauek daude:

- **Oroit(h)arri** antzezlanak.

- Isidoro Fagoaga
- Berako Oihua (momentuz azken 10 urteotakoak bildu dira. Poliki-poliki aurrekoak ere sartuko dira)

- San Migel zubia 1813-2013

- Langile batailoak Beran

- Espainiako gerrako fusilatu eta desagertuak gogoan

- Julio Caro Baroja 1914-2014

2. Testigantzak: herriaren bideoak, irudi-



UTZITAKO ARGAZKIAK

Arantxa Arregi omendu dute Mendikoko kantu bazkarian

Ibardingo Mendiko sagardotegian Kantu Zahar bazkaria egin zuten martxoaren 11n. Bazkaria eta bazkalondoa kantu giroan pasatzeaz gain, urtetan Cerderna-Garalur erakundearen eskualdeko garapen-agentea izan den Arantxa Arregiri omenaldia eskaintzeko aprobetxatu zuten. Arantxa Arregik hainbat origarri eta opari jaso zituen. Angel Mariezkurrenaren esker oneko hitzak aditu ondotik, Aitor Mendiluzek ere bertso batzuk kantatu zizkion eta Euskal Artzainak Ameriketara elkarrekin ere makila eta lore-xorta eman zizkion, bera izan baitzen, Euskal Artzainen Eguneko bultzatzaile nagusietako bat. Larun Haizpe elkartearen Helena Santestebanek ere esker oneko hitzak eskaini zizkion, Arantxa Arregik eskualdeko komertzioaren alde egindako lana goraipatuz. Arantxa Arregik, hunkituta, beretaz oroitzea eskertu zuen.

ak, argazkiak, dokumentuak... euren gertaera eta bizipenak bere horretan altxatuko dira.

3. Blog kolektiboa: proiektu irekia eta dina-

mikoa da. Herriaren iraganean interesa duen herritar orok parte hartzeko izanen du.

Udalak herritarrei luzatu die deia platafor-

ma hau bisitatzera gonbidatuz, herriaren iragana hobeki ezagutzeko eta horretan parte hartzeko gonbita ere egingen die.

FLASH

Uxanekoan antzerkia

Aspaceko Uxaneko ikasleek *Hotel Brasil* antzezlan eskainiko dute martxoaren 24an, ortziralean 19:00etan Kultur Etxean.

Haurrentzako ipuin kontalaria

Izaskun Mujika ipuin kontalaria *Hitzen lapikoa* 4 urtetik aitzinerako haurrei zuzendutako saioa eskainiko du martxoaren 31n, ortziralean 18:00etan herri liburategian.

Kalera kalera isunak

Abenduan egindako itxialdian eta plazako argazki erraldoian parte hartu zuten herritar batzuei isuna ezarri die Guardia Zibilak. «Argi dugu elkartasuna ez dela delitua eta horrelako eraso bitartez indar zapaltzaileek ez dutela beldurra ematea bertzerik bilatzen, baina helburu horretatik urrun daude» dio Kalera Kaleraren oharra, salatuak bere elkartasuna eta babesa helarazteaz gain.

Ehiza eta Arrantza elkartearen batzarra

Ehiza eta Arrantza Elkartearen urteko batzarra egingen du apirilaren 8an, larunbatean 19:00etan lehen deialdian eta 19:30ean bigarren, elkartearen egoitzan.


tel. 948 631 519
www.xugabera.com
www.facebook.com/xugabera


HARATEGIA / URDAITEGIA
Enaut & Nekane
Kanttonberri 12 • BERA
Tfno/Fax: 948 630 018


Zalain • BERA • 948 630 052

LESAKA

KULTURA → APIRILAREN 1EAN

Haur kantarien topaketa eginen dute bigarren urtez elizan

Tantirudantza jaialdia eginen dute biharamunean

Aitor AROTZENA

Joan den urtean egin zuten moduan, Imanol Elizasurekin batera emanaldi berezia presatzen ari dira Bortzirietako eta Baztango haur kantariak, apirilaren 1ean, 17:30ean San Martin elizan eskainiko duten Baztan-Bidasoko haur kantarien topaketa emanaldirako.

Ez da egun horretan, musikarekin lotutako ekitaldi bakarra izanen. Izan ere, Musika banda herriko kantuak bilduko dituen diska prestatzen ari da eta apirilaren 1ean, goizez joatekoak dira Donostiara grabatzera musikariak, abeslariak eta laguntzailak.

Horiek denak baino lehen, aitzineko alean aipatu bezala, Nafarroako haur eta gaztetxoek kantu jaialdiko saioa izanen da martxoaren 25ean Hiriandoan. 150 bat abeslari espero dituzte eta leku arazorik ez izateko, bi zatitan banatu dute emanaldia. 18:00etan Leitzako neskek, Leire Erbiti (Leitza), Goizuetako eskola, Arano herria eta Azpilketako Enara Arregi ariko dira. 19:00etan Tantirumairu ikastola, Mendaur triki eskola, Sunbilla ikastola eta Baztan Ikastolako taldeak ariko dira.

Tantirudantza apirilaren 2an

Tantirumairu euskal folklore taldeak antolatutako Tantirudantza jaialdia eginen dute apirilaren 2an. Herriko dantzari tikiiekin bate-



UTZITAKO ARGAZKIA

Jon Olaizola Euskal Ligako txapelburuz buruz buru

Martxoaren 12an jokatu zen Mungia Euskal Liga pilota txapelketako finala, buruz buruko senior kategorian. Bortzirietako taldeko Jon Olaizola herritarrek 22-14 irabazi zion Mungia Danak Bat elkarte Madariagari. Txapelketa honeko partida guztiak irabazi ditu Olaizolak.

APIRILAREN 7RAKO AURKEZTU BEHAR DIRA LANAK

Sanferminetako kartel eta azal lehiaketa abian

A. AROTZENA

Sanferminetako programaren azala eta bestak iragarriko dituen kartela aukeratzeko lehiaketa deitu du Udalak, Lesakan jaio edota bertan bizi direnentzat. Lanak Udal bulegoetan aurkezteko epea apirilaren 7ko 13:00etan akautuko da, lehiaketa hauetan ohiko den sistema erabiliz. Kartel nahiz azal lehiaketen irabazleek 250 euroko saria eramanen dute. Bertze aldetik, gibekeko azala

aukeratzeko, herriko ikastetxetan ikasten ari diren 6 urtetik 12ra bitarteko haurrei zuzendutako portada lehiaketa ere deitu du Udalak. Hauek ere epe bera izanen dute lana aurkezteko eta 100 euroko saria.

Aurkezten diren lan guztiakin erakusketa bat osatuko da Kultura eta Turismo Bulegoan (Beheko Plaza, 5) apirilaren 13tik 23ra (biak barne). Azken urteetako ohiturari eutsiz, herri bozketak erabakiko du lehiaketa.

ra, Berako Gure Txokoa, Zumaiako Txori Txiki, Getariko Gure Txeru eta Lezoko Murririka taldeetakoak izanen dira.

Igandean, 10:00etan taldeei ongietorria egin ondotik, karrikaz karrika ibiliko dira. 11:45ean Zubigainekoa eskainiko dute herritarrek eta

gero, plazan eginen dute jaialdia denak batera. Bazkalandoan, 17:30ean Kiki eta Koko pailazoak izanen dira plazan.

BILTEGIA 948 630 102
ANDER 687 736 929
 Bidasoa, 76 - atea 21-22
 31780 BERA

- Lentzeria
 - Bainujantziak
 - Mertzeria
 - Jantzi tipikoak
 - Peñen busak

kattagorria
 lentzeria mertzeria
 Beheko plaza 10 31770 Lesaka
 T. 948 627 514

IRU BIDE
 Erretegia · Asador

Biurrana, 3 · Lesaka
 Tel: 948 637 127

KAGU
LIBURUDENDA
 Tel. / Fax 948 638 232
 Koskontako bidea, 7
 (osasun-zentroaren parean)
 31770 LESAKA

- LIBURUDENDA
- KOLORETAKO FOTOKOPIAK
- USBtik EGINDAKO INPRIMAKETAK
- ESKANERRAK
- ESKOLA MATERIALA
- INFORMATIKAKO MATERIALA
- BULEGORAKO MATERIALA
- EGUNKARIAK, ALDIZKARIAK

TTPI-TTAPA ALDIZKARIA
 SARE SOZIALEAN

facebook
 www.facebook.com/ttppi.eus

ZUBIONDO
Jatetxea
 sagardotegia jatetxea

Alasta karrika
 BERA NAFARROA
 TLF: 948 625 474

KULTURA → IRAILAREN 16 ETA 17AN TAULARATZEKO

Karmen Etxalarkoa pastoralaren prestaketetan hasiak dira

Pantxika Urruti zuberotarra da zuzendaria

Irene ELIZAGOIEN

Ehun lagun baino gehiago igoko dira oholtzara, Prosper Merimeren *Carmen* nobelan oinarritutako *Karmen Etxalarkoa* pastorala eskaintzera. Gerardo Mungiak idatzi du gidoia, eta Pantxika Urruty ari da zuzendari lanetan. Martxoaren 2an pastoralaren lehenengo prentsaurrekoa eskaini zuten Kultur Etxean.

Bertan Pantxika Urruti zuzendariak azaldu zuen, etxalartarrentzat berria dela pastoral bat egitea eta pixkanaka ari direla herritarrek antzerki mota zahar honetara ohitzen. Pastoralak Karmen eta Joseren arteko ezinezko amodioaren istorioa kontatzen du. Karmen pertsonaia etxalartarrenez, Etxalarko Miren Olaetxeak egiten du paper hau eta Jose baztandarra izanik, Miel Joxe Ariztia amaiurtarra izanen da Jose. Etxalartarrentzat desafio moduko bat da pastoral hau aitzinera eramatea eta seriotasun handiz eta gogor lanean ari dira herritarrek. Kultur etxean, elizan eta frontoian egiten dituzte entsegu-

ak igandeetan. Pastoralak antzerki mota bat den arren, barruan dauzka musika, dantza, kantua... Honetarako Amadeo Arretxeak zuzendu ditu Etxalarko Andre Mari dantza taldeko dantzariak, eta pastoralerako zenbait dantza sortu ditu. Honez gain, *Satanen dantza* bereziak ere izaten dira, eta Iparraldetik hiru lagun etortzen dira astero dantza hauek erakustera. Musika berriz, Javier Perez de Azpeitiak eta Errege Beldak sortu dute, eta Amaiurko abesbatzak ere parte hartuko du, Etxalarko txistulariekin eta bertze hainbat musikarirekin batera.

Pastorala aitzinera eramateko elkarte bat sortu da. Lan aunitz daude pastoralaren gibelean, dantza eta musikaz gain, arropak edota komunikabideen alorra, horiek kudeatzeko sortu da Karmen Etxalarkoa Pastoral elkarte.

PROIEKZIOA

Pastorala ikuskizuna hobekiago ezagutzeko, Etxalarko Karmen pastorala antolatzen diharduen elkarteak *Katalina Erauso* pastoralaren proiektioa eskainiko du bi saioetan banatuta Kultur Etxean. Lehena martxoaren 24an izanen



ARGAZKIA: TTIPI-TTAPA

Pastoralaren berri eman zuten martxoaren 3an Kultur Etxean egindako agerraldian.

da eta bigarrena martxoaren 31n, biak 18:30ean. Proiektatuko den lana *Karmen Etxalarkoa* Pastoralaren zuzendaria den Pantxika Urrutiren lana da.

Zuhaitzaren eguna

Martxoaren 10ean zuhaitzaren eguna ospatu zuten Landagain eskolakoek Axeri lepon. LHko ikasleak oinez joan ziren eta HHkoak

kotzez. Zuhaitz landaketa bukatuta, bazkaldu eta udalak eskainitako hameketakoaz gozatzeko aukera izan zuten. Aunitz ikasi eta egun polita pasata itzuli ziren.



ARGAZKIA: IRATI IRIARTE

Arantzako II. Trikitixa jaialdian

Martxoaren 11n ospatu zen Arantzako II. Trikitixa jaialdia. 140 trikitilari eta panderojole inguruk parte hartu zuten jaialdian, tartean Etxalarko 8 trikitilarik.



ARGAZKIA: JONE BIZENTE

Herriko gazteak sagardotegian

Urtero bezala sagardotegira irteera egin zuten herriko gazteak martxoaren 11n. Aurten Adunako Zabala sagardotegira joan ziren 40 gazte baino gehiago.

ARANTZA

KULTURA → TRIKITIXA JAIALDIA

Bigarrena ere
arrakastatsuaJendetza bildu
da trikitixa
jaialdian

Nerea ALTZURI

Joan den martxoaren 11n, Udaleko Kultura Batzordeak antolatuta, II. Trikitixa Jaialdia egin zen frontoian eta ekitaldi jendetsua izan zen.

130 bat trikitilari eta panderojole bildu ziren. Herritarrak ez ezik eskualdeko adin guztietako musikariak elkartu ziren eta era guztietako piezak aditzeko modua izan zen. Saio anitza izan zen. Tartean, Sahatsa Dantza Taldeko dantzariak ere aritu ziren eta ederki astindu zituzten hankak. Partaide guztiak oroigarriak jasoz zituzten eta bertzelako sariak ere zozketatu zituzten euren artean. Publikoaren artean zozketaturiko saria, Arantza Hotelean spa saioa, Gorka herritarrentzat izan zen.

Saioaren akabailan, Pantaleon Errandonea herritarra igan zen oholtzara. Pantaleon arpanlari ezaguna izan zen, herri-kiroletako hainbat erakustaldi eta txapelketetan aritua. Herrian gazte txoen herri-kiroletan ere irakasle izan zen hainbat urtez. Baina ez hori bakarrik. Herriarengatik auzolanen hainbat lanetan aritua da: udaletxean, Ekaitza Elkartean, Bortzak Bat kooperatiban... Herriko bandera astintzen ere herriko bestetan eta Bestaberri egunean...

Sebastian Lizasoko bertso ederrak kantatu zizkion eta ondotik, dantzariak dantza bat eskaini zioten. Segidan, Nafa

roako Herri kirol Federazioko lehendakaria den Xabier Urrutia arraiozterra oholtzara gainera igo eta eskerrak eman zizkion federazioaren izenean. Daniel anaiarekin, erakustaldia egin zuten. Bertze sorpresa Pantaleonen ilobak diren Rafa Errandonea eta Juan Kruz Lizardi hurbildu zirenean izan zen. Bi bikoteek arpanen desafio ttiki bat egin zuten. Akautzeko, Igor Ugalde zinegotziak oroigarria eman zion Pantaleoni eta honek, hunkituta, eskerrak eman zituen.

Bertalde, saioak iraun zuen bitartean, Pelle-Tiki Haur Txokoaren 10. urteurrenaren harira paratutako argazki erakusteta ikusgai izan zen, eta neska-mutikoei margotzeko aukera ederki aprobetxatu zuten.

Garbitzaileak

Martxoaren 1az geroztik Enkarna Indakoe-txea herritarra eta Ana Belen Estevez beratarra ari dira udal instalazioak garbitzen. Sei hilabetez ariko dira eta Udalen Nafarroako Gobernuaren laguntza izanen du langabeak kontratatzeagatik.

Mendi lasterketa

Aitzinera doaz apirilaren 23an egingen den mendiko lasterketarako prestaketa lanak. Halere, dena behar bezala atera dadin, herritarren laguntza beharrezkoa da eta apirilaren 8an lasterketari buruzko bilera izanen da 19:00etan Ekaitza Elkartean. Lehenagotik jendea apuntatzea ere eskertuko dute, eta horretarako Julen Oskoz edo Imanol Lukanbiori abisatu behar da.



ARGAZKIAK: MIKEL LARRETXEIA

Momentu polit eta hunkigarriak sortu ziren aurtengo trikitixa jaialdian.



UTZITAKO ARGAZKIA

Gure Esku Dago bertso afaria giro ederrean

Martxoaren 11ko eguna ez zen musika doinuekin eta omenaldiarekin akautu. Herriko Gure Esku Dago dinamika antolatuta, bertso afaria izan zen Sebastian Lizaso eta Iker Zubeldiarekin. 50 bat lagun bildu ziren afarian eta giro ederra izan zuten.



UTZITAKO ARGAZKIA

Txaboia egiteko tailerra

Joan den martxoaren 10ean, etxean txaboia nola egin daitekeen erakutsi zuen Sagrario Telletxea herritarrek. Hagitz ikastaro interesgarria izan zen eta bildutako herritarrek arrotz gustura egon ziren.

GIZARTEA → APIRILAREN 1EAN BARATZONDON

Euskararen erabilera eskasaz aritzeko saioa

Euskara Batzordeak duen kezka gainerako herritarrekin konpartitzeko

TTIPI-TTAPA

Ignantziko Euskara Batzordeak bilera ireki

bat antolatu du. Batzordearen azken urteotako kezka da herrian, plazan, parkean, ostatuan, dendan... gero eta gutxiago aditzen dela euskara. Kezka hori euskara batzordeko zirkulutik atera eta gainerako herritarrekin konpartitu nahi dute eta gaiari buruz solastu. Horixe da saioaren helburua, eta he-



ARTXIBOKO ARGAZKIA

III. Gladiator's Day proba igandean Irri Sarri Land-en

Martxoaren 17an ideki zituen berriz ateak Irri Sarri Land Abentura Parkeak, jardura berriak, hobekuntzak eta handitze-lanak egin dituzte instalazioetan eta ekitaldi berriak eskainiko dituzte. Lehenbiziko ekitaldi handia igande honetan, martxoaren 26an egingen da Gladiator's Day proba gogoraren hirugarren edizioa.

rritarrei dei egiten diete bertan parte hartzera.

Saioa apirilaren 1ean, larunbata, izanen da,

arratsaldeko 4etan hasita, Baratzaondon. Pare bat ordu iraunen du, eta kafetxo bat hartzen

duzen bitartean gaiari buruz solastuko dira, bertze tokietako esperientziak ezagutu, etab.


ES 025

BEROPEL

egurrezko pelleta

ECHEVESTE HNOS. SL

T. +34 948 637 232 • +34 618 264 654

31770 LESAKA (Nafarroa) • Fax + 34 948 637 250

info@echevestehermanos.com
www.echevestehermanos.com

BORTZIRIAK-MALERREKA

GIZARTEA → MARTXOAREN 27TIK 31

Neguan egindako konposta banatuko dute Mankomunitateek

Martxoaren 27tik 31ra
Lesakan,
apirilaren 1ean
Alkaiagan eta
apirilaren 8an
Donezteben

TTIPI-TTAPA

Azken urteetan bezala, aurten ere udaberrian sartu orduko jendea loreak jartzen eta baratzean lanean hasiko da. Horregatik, neguan zehar pilatutako konposta banatu behar dute Bortzirietako eta Malerrekako Mankomunitateek.

Bortzirietan arrakasta handia izan du konpost banaketa honek azken urteetan eta aurten berrikuntza bezala Malerrekako ere eginen da lehen aldiz.

NOIZ?

- **Martxoaren 27tik 31ra** (astelehenetik ortziralerara): Lesakako konpostagailuak irekiak egonen dira nahi duenak bertatik konposta hartu ahal izateko. Honako auzo konpostguneetatik eginen da banaketa:
 - Azkaine karrika (gasolindegiaren ondoan)
 - Albistur (lau blokeen atzealdean)
 - Iturrunzubiko plaza
 - Bittiria (frontoiaren atzeko aparkalekuan)
 - Bittiriako plaza
 - Eltzeta (Aliprox parean)
 - Bittiria 45 (Ogi Berri parean)

5. edukiontzia edo edukiontzi marroia jarri zenean, Lesakako auzo-konpostguneak itxi ziren. Hilabete hauetan konposta ondu egin da eta orain prest dago erabili ahal izateko. Beraz,



ARTXIBOKO ARGAZKIA

Emakumearen Eguneko mendi martxa eta mosaikoa Bortzirietan

Emakume Langilearen Nazioarteko Egunaren harira hainbat ekitaldi egin dira Bortzirietan. VIII. Mendi Martxak 53 emakume bildu zituen Arantzan eta Berako Ricardo Baroja eta Toki Ona ikastetxeetako ikasle eta irakasleek mosaikoa osatu zuten patioan. Goldatz taldeak deituta manifestazio jendetsua ere egin zen.

konpost guztia, konposta egiten zutenen artean banatuko da eta konpostagailuak kendu egingo dira.

• **Apirilaren 1a** (larunbata): Goizeko 11tan Bortzirietako Manko-

munitateak Alkaiagako poligonoan duen nabean.

• **Apirilaren 8a** (larunbata): Goizeko 11tan Malerrekako Mankomunitateko egoitzan (Donezteben)

NORENTZAT?

Malerreka edo Bortzirietan etxe edo auzo konposta egiten dutenentzat. Norberak bere zaku, poltsa edo dena delakoa eraman behar du konposta garraiatzeko.



Lehen jaunartze eguna

Menu ezberdinak
Haurrentzako animazioa

Bazkal ondoren haurrek jolastu, dantzatu eta ongi pasatzeko espazio berezia dugu, **animatzaile** baten eskutik. Eguraldiak ez badu laguntzen egokitutako leku estalia dugu.

Kontsultatu gure eskaintzak
T. 948 63 50 00 | info@etxalar.com



ARGAZKIA: JAIONE OTXANDORENA

Sunbillako Arkupeak elkartearen bestan 55 bazkidek parte hartu dute martxoaren 5ean

Sunbillako Arkupeak elkarteko kideek beraien eguna ospatu zuten martxoaren 5ean. Meza ondotik, mus txapelketa jokatu zuten 10 bikotek Ariztigain kanpinean. Bazkaria bukatutakoan sariak banatu zituzten. Irabazleak Migel Manterola-M^a Jesus Legaz, bigarrenak: Jose Antonio Ibarra-Migel Anzizar, hirugarrenak: Jose Migel Zelaieta-Juan Pedro Bertiz, laugarrenak: Iñaki Luengo-Karmele Osa. Sariak emandakoan Sunbillako Arkupeak elkarteko zaharrena den Pako Pascuali omenaldia eskaini zioten (eskuineko argazkian).

OSPAKIZUNAK → MARTXOKO AZKEN ASTEBURUA

Asteburu Kulturala betea dator

X. Artisau feria
eta gazta
lehiaketa
igandean

Maider PETRIRENA ORTZIRALA, MARTXOAK 24

- 16:30 Txokolatada
- 17:00-19:00 Jokulandia
- 19:30 *Alicaté: la grama del amor*. Estefania de Paz (aktorea eta abeslaria) eta Alice Dos Santos (piano jolea) bikoteak osatutako emanaldia Ulibeltzak Elkartean.
- Ondoren afari auto-gestionatua Ulibeltzak Elkartean.
- 22:00 Mus Txapelketa Bustitz ostatuan.

LARUNBATA, MARTXOAK 25

- 8:30 Mendi ibilaldia oi-

nez edo bizikletaz Suspirora (Plazan elkartuko dira).

- 11:00-13:00 Jokulandia.
- 14:00 Bazkaria Ariztigain Kanpinean. Apuntatu nahi duenak Kanpinera deitu (948 450 540). Ondoren Mus eta Txintxon txapelketa.
- Arratsaldean trikipo-teoa herrian barna.
- 16:00-19:00 Jokulandia eta berendua.

IGANDEA, MARTXOAK 26

- 10:00- 14:00 X. Artisau feria eta gazta lehiaketa.
- 11:30 Herriko dantzarien emanaldia.
- 16:30-19:00 Artisau feria.
- 19:00 Gazta lehiaketako sari banaketa eta zare eder baten zozketa.



ARGAZKIA: ENeko HERRERA

Gazteak sagardotegira

Martxoaren 11n Sunbillako 35 gaztek Hernaniko Oianume Sagardotegian egun ederra pasatzeko aukera izan zuten. A ze nolako giroa izan zuten!



ARGAZKIA: Bidal IBARRA

Ulibeltzak mendi taldeak irteera Xabierreara

Ulibeltzak mendi taldekoek urteroko Xabierrearako irteera egin dute martxoaren 11n Koroien portutik (puerto de las coronas) aterata oinez.

DONEZTEBE

GIZARTEA → LIBURUTEGIAK ETA OSTIZ LIBURU DENDAK

‘Irakurri, gozatu eta oparitu’ kanpainarekin bat egin dute

Irakurzaletasuna bulkatzeko kanpaina sustatzen ari da Mankomunitatea

Marga ERDOZAIN

Irakurzaletasuna bulkatzeko ekimen hau Euskaltzaleen Topagunea eta Malerrekako Mankomunitateko eta Leitza, Areso, Goizuetta eta Aranoko Euskara Zerbitzuak antolatua da eta martxoaren 20tik maiatzaren 31 bitartean gauzatuko da. Helburua herritarrak euskarazko liburuak irakurtzera animatzea da. Ekimenak parte hartzea saritzen du, liburuak erosteko abantaila ekonomikoak ematen ditu eta liburua opari bihurtzera gonbidatzen du. Hiru pauso eman behar dira bertan parte hartzeko: *Irakurri*. Horretarako, liburutegira joan, eta euskarazko edozein liburu maileguan eskatu ahal izanen da. Bigarrena, *Gozatu*: liburua irakurri, liburutegira itzuli eta fitxa erraz bat bete beharko da. Fitxa hori beteta, liburuzainak erosketaxe emanen digu, liburu-dendan erabiltzeko. Eta azkena *Oparitu*, liburua oparitzea da: lagun bati, senide bati, edo norberari.



UTZITAKO ARGAZKIA

Lila lasterketa eta flasmoba Emakumearen Egunaren harira

–Zer da Lila-lasterketa ama? –Berdintasuna lortzeko lasterketa. –Ba, berdintasunerako lasterketa oztopoen lasterketa da, amatxo. Nik erranen nuke bizi guztia irauten duen maratoi neketsua... –Ez, seme. Aurten Doneztebeko karraketan korritu den lasterketa lila da, morea da eta lekukoen lasterketa izan da. Ez al duzu ikusi mutiko eta neskak denak batera nola joan diren? ez al duzu ikusi lekukoa elkarri nola pasa dioten? –Eta zer zegoen lekuko horretan, ama? –Ba, egia bihurtuko diren ametsak: egunen batean emakumeok berdintasunez eta askatasunez mundu osoan biziko garena, egunen batean emakumeok gizonen adina irabaziko dugunarena, egunen batean kolorerik gabeko lasterketa ospatuko dugun ametsa, eta ez martxoaren 8an. –Ados ama. Dena den, gustatu zaizkit aurten martxoaren 8ko ospakizunak: lasterketa, “flasmob”a (bai martxosoak Mendaur institutukoak); bakarrizketak, ipuin erotikoak (horretara ez nintzen joan baina badakit zuri gustatu zitzaizkizula), Mendi Abesbatzaren kontzertua, afaria... Dena ongi atera da, zorionak ama eta zorionak emakume eta gizon guztioi aste morea hain berezia egiteagatik!

Herrian erosi, euskaraz erosi

Momentuz Arrate estetika zentroa, Kimetz belar-denda, Kukuka haur arropa denda, Male-reka, Maria ileapaindegia, Mendingia botika, Ostiz Etxea, Pepa's kafetegia, Saldias harategia, eta Zarbo Informatikak bat egin dute kan-

paina honekin. Euskara Zerbitzuak antolatu du Baztan eta Bortzirietakoekin batera, Denok bat merkatarien elkar-tearen babesarekin. Eskualdeko merkataritza bultzatzeaz gain, euskararen erabilera ere bultzatu nahi da. Kanpainan parte hartzeko irizpide bakarra salto-

ki, ostatu edo enpresako langileek gutxienez euskara ulertu beharko dutela eta parte hartzea doan dela. Kanpainari indar emateko eta bezeroak inplikatzeko asmoz, argazki lehiaketa martxan da apirilaren 7ra arte. Argazkiak kanpainan parte hartzen duten saltoki edo ostatu-

tan atera beharko dira eta gaia honako hau izanen da: Euskara eta merkataritza. Lehiaketan bi sari banatuko dira (150 euro argazki onenari eta bertze 150 euro argazki atera den saltoki edo ostatuari). Argazkia whatsapp bidez bidaliko da 638529785 telefonora.

AGENDA

Musikoterapia tailerrak martxan

Tailer honetan parte hartzeko jende anitz apuntatu denez (30 lagun), Udalak bi talde egitea erabaki du, astelehen eta ortziraletan. Martxoaren 17 eta 20an hasita, lau astelehen eta lau ortziraletan burutuko dira.

Korrikari ongi etorria ematea

Donezteberen bihotza zeharkatuko du 20. Korrikak apirilaren 3an. Baztandik Bertizarana zeharkatuta gurean sartuko da lasterketa, 20:54ean. Doneztebetik Elgorriaga aldera abiatuko da, Ituren, Zubieta, Saldias eta handik Orokietara.

Langile berriak

Udalak lau langile berri kontratatu ditu herri lan, garbiketara eta mantenu lanetarako. Sei hilabeterako kontratua izanen dute eta langile hauekin Udalak hainbat lan burutu nahi ditu: espaloi eta igerilekuko molaketak, jolas parkeen txukunketa lanak...

BORDALARRIA
Carnes Sein Haragiak, S.L.
Industrialdea, 27 • MAFRIDO ERAIKINA • DONOSTIA
Tel. 943 467 244 943 467 444 • Fax. 943 473 726 • carnessein@bordako.com

Bidasoa
GASOLINDEGIA
A, B eta C motako GASOLIOA ETXERA
24 ORDUZ
Alkaiaga Industrialdea, 4. LESAKA • T. 609 446 693

JAIONE - COXOTEGIA
948 630 786
Aitzate, 21 • BERA

GIZARTEA → MARTXOAREN 25EAN GAZTE ASANBLADAREN ESKUTIK

Autodefentsa eta maskulinitate tailerrak prestatu dituzte

Doneztebeko kiroldagian emakumeentzat eta Elgorriagako Herriko Ostatuan gizasemeentzat

TTIPI-TTAPA

Martxoaren 8ko Emakume Langilearen Egunaren harira hausnarketa plazaratu du Malerrekako Gazte

Asanbladak eta horrekin lotuta bi ekitaldi ere antolatu ditu martxoaren 25erako. Gazte Asanbladak dioenez, «emakumearen egoera aldatzea, ez da emakumearen ardura bakarrik, gizarte osoarena baizik. Askotan ikusten dugu feminismoa, emakumeetara mugatzen dela, eta hori hanka motz gelditzen da. Egia da, emakumeek lanketasakon bat egin behar dutela, ahalduz eta berdintasuna lortzeko, baina hau ez da benetan

lortuko, beste aldeak, gizonezkoen aldeak, bere lanketa propioa egin ez badu, feminismo eta berdintasunean hezitzen ez bada».

Egoera honi aurre egiteko antolatu ditu Gazte Asanbladak larunbaterako ekitaldiak. Doneztebeko kiroldegian, emakumeentzako autodefentsa tailerra izanen da 09:00etatik 14:00etara, Emagin elkartearen eskutik eta Malerrekako mankomunitatearen laguntzarekin. «Beharrezkoa ikus-

ten dugulako, emakumeak bere egoeraz kontzientziatzea eta erasoer modu pertsonalean aurre egitea», dio Asanbladaren oharrak. Lekua mugatua denez, izena eman beharra dago, horretarako zenbaki honetara deitu behar duzue: 948451746.

Bertze aldetik, aipatu bezala, lanketa hau ez da bakarrik emakumeen ardura, eta horrexegatik, mutilentzako *Maskulinitate berriak* tailerra antolatu dute, Emagin elkartearen eskutik.



UTZITAKO ARGAZKIA

Autodefentsa ikasiko dute emakumeek kiroldegian.

Malerrekako Gazte Asanbladatik aipatu dutenez, «gizonezkoak, zapaltzaile diren heinean, beharrezkoa da hori identifikatu eta heziketaren bitartez ekiditea».

Kasu honetan, tailerrak ez ditu plaza mugatuak izanen, eta Elgorriagako Ostatuan emanen da martxoaren 25ean, 10:00etatik 14:00etara.



Zure jaunartzean
besta egun
zoragarria!

Menu aukera zabala
Jangela pribatua
Bazkal ondorengo festa (aukeran)

ITUREN

GIZARTEA → PROPOSAMENAK MARTXOAREN 31 ARTE

Eskolarako sukaldaria eta zaintzaile bila deialdia

Ordezkapenak egiteko zerrendak ere osatuko dituzte

Arkaitz MINDEGIA

Pulunpa eskolan sukaldaria eta zaintzaileak kontratazeko deialdia ireki dute. Bi kontratazio deialdi egin dituzte: bat sukaldaria aukeratzeko eta bestea zaintzaileak aukeratzeko. Momentuan sukaldari bat eta bi zaintzaile kontratazeko asmoa dute.

Guraso Elkarteak langile bezala kontratatuko dituzte eta ez autonomo gisara. Kontratuak urritik maiatzera izanen dira. Sukaldari irailera eta ekainera luzatzen ahal zaio kontratua, beharren arabera (zaintzaileei, ez dago aurreikusia luzatzerik).

Sukaldaria egunean

sei ordurako kontratatuko da (astelehenetik ortziralerara) eta zaintzaileak bi ordurako egunean (astelehenetik ortziralerara asteazkenak ezik). Bazkaria eskolako sukaldarian bertan prestatu beharko da. Sukaldaritza zerbitzuan eta zaintza zerbitzuan sartuta dauden lanak edo eginbeharrak zehaztuta daude deialdian. Parte hartzeko eskaera eta beharrezkoa izanen den dokumentazioa aurkezteko epea martxoaren 31 artezabalduta da. Deialdian agertzen dazela ordu egietan eramatean ahal den dokumentazioa (eskaeraren kopia bat sinatuta eraman dezan aurkezten den pertsona bakoitzak).

Bi zati izanen ditu balorazioak: Lehenbizi aurkeztu den pertsona bakoitzaren meritua baloratuko dira (esperien-



UTZITAKO ARGAZKIA

Arantzako Trikitixa jaialditik Lesakako Haur Kantu jaialdira

Martxoaren 11n Arantzakan izan zen II. Trikitixa jaialdian Mendaur trikitixa eskolako ikasleek saio polita eskaini zuten eta ederki pasa zuten eskuladeko bertze trikitilarekin batera. Orain, martxoaren 25ean Lesakan izanen den Nafarroako Haur eta Gaztetxoek Kantu jaialdian parte hartuko dute. Denetara lau talde joanen dira, 60 ikasle gutti gora behera eta arratsaldeko 7etan izanen den bigarren saioan parte hartuko dute Harriondoa Kultur Etxean.

tzia, lanari buruzko formakuntza...). Gero, proba praktikoa izanen da.

Bi zerrenda eginen dira: bat sukaldari zerbitzurako aurkeztu direnekin eta bestea zaintzaile zerbitzurako aurkeztutakoekin. Puntuazio gehien atera dute netik gutxiena atera dutenera ordenatuko dira aurkeztu diren guztiak. Kontratuak puntuazio gehien atera dutenei eskainiko zaizkie. Besteak zerrendan egonen dira, beharren arabera eskaintzeko kontratazioa (zaintzaile gehiago behar badira, adibidez).

Korrika

Apirilaren 3an Korrika Iturendik pasatuko denez, eskolako komunitateak kilometro bat erosiko du, Udala eta gazteen elkartearekin batera. Pulunpa eskolan kutxa bat jartzeko asmoa ere badute diru bilketa egiteko.

Ekarpenak martxoaren 25eko eguerdiko 12ak arte egin daitezke. Udala eta gazteen elkartearekin batera erositako kilometroa Iturengo herrian bertan izanen da, (989.a hain zuzen ere), apirilaren 3ko, gaueko 9ak aldera.

FLASH

Eskolako irteera Donostiara

Pulunpako eskolako ikasleek Malerrekako bertze eskola ttikiekin batera. HH eta LH 3. maila arte Donostiko Zientzia Gunera eta Planetariora joanen dira eta arratsaldean berriz Txiki Parken jolasteko aukera izanen dute. 4., 5. eta 6. mailakoak Bilbora joanen dira eta Guggenheim bisitatuko dute. Tailerrak eginen dituzte eta Zubi Zintzilikuari bisita ere eginen diote.

Joaldunak berriz Kepa Junkerarekin

Bilboko Arriagako emanaldiaren ondotik, pasa den martxoaren 11n Iturengo Joaldunak Kepa Junkeraren Maletakbiran parte hartu zuten Gernikako Jai Alai pilotalekuan eta datorren martxoaren 25ean, larunbat arratsaldeko 8etan Iruñeko Baluartean izanen dute hurrengo saioa musikari bizkaitarrarekin.

zergalan | asegi
asesores y consejeros de empresa
enpresa kontseilari eta aholkulariak

ORAIN ZERBITZU BERRIAK ESKAINTZEN DITUGU

- Kontabilitate zerbitzuak
- Zerbitzu fiskalak
- Lan-aholkularitza
- Aholkularitza juridikoa
- Herentzia eta Testamentuak
- Laneko Arriskuen Prebentziorako Zerbitzua
- Datuen babesa

Baztanberri plaza, 6
31700 ELIZONDO
T. 948 581 300 - F. 948 580 648

www.zergalan.es | info@zergalan.es
www.asegi.com

Eliza Kalea, 22
31740 DONEZTEBE
T. 948 450 395 - F. 948 451 304

GIZARTEA → MARTXOAREN 11N

Pelikula eta afaria izan dituzte Emakumeen Eguna ospatzeko

28 emakume bildu ziren Herriko Ostatuan egindako afarian

Fermin ETXEKOLONEA

Emakumeen Eguna- ren harira, *Fatima* filma eskaini zuten eskolan, Udalak antolatuta. Ondotik, Herriko Ostatuan 28 emakume bildu ziren afaltzera, argazkian ageri denez, giro onean eta sasoiari.

Errotarako eta herri lanetarako langileak

Herrian egin beharreko lanetarako langileak hartu ditu Udalak. Edorta Murua ariko da errotazain eta herriko mantenu eta beste lanetan Martin Loiarte eta Joseba Elizalde.

Martxoan hasiak dira lanean. Aipatu errotako orduategia, Aste Santua bitarte, 11:00-etatik 14:00etara izanen dela asteazkenetik igandera (astelehen eta asteartetan itxita).



UTZITAKO ARGAZKIA

Banda-zabalera beharraren arabera aldatzen ahal da instalazio berririk egin gabe

Lau taldea Errandonea ostatuan ostiralean

Martxoaren 24an Errandonea ostatuan kontzertua eskainiko du Lautaldeak, ostiral arratsko 10:30ean. Igeldoko taldeak pop-rock euskarazko bertsioak egiten dituzte. Kontzertuaren aurretik afaria eskainiko dute Errandonean, 10 eurotan. Mar-

txoaren 23an bukatzea da izen emateko epea.

Itturri Berako finalaurrekoan

Martxoaren 5ean Uhartan kantatu zuen Ander Fuentes Itturri bertsolariak, Nafarroako bertsolari txapelketako final laurdenetako azken saioan. Hirugarren izan zen 290 pun-

tu eta erdirekin eta honela, martxoaren 18an Beran egin behar zen finalaurrekorako txartela lortu zuen.

Gaur egungo txapelduna den Julio Soto, Eneko Lazkoz, Iñigo Olaetxea, Kotte Plaza eta Alazne Untxalo izan ditu lagun oholtzan eta hau idazterakoan, ezin jakin finalean lekurik izanen duen edo ez.

1951tik
Casa Cambra
lentzeria-etxea

Udaberriko kolekzio berria!

Edredoi nordikoetan espezialistak

edredoi fundak · albornoak · edredoi nordikoak · ohe estalkiak · maindireak · mantelak · kuxinak · toailak

Tafalla, 13 · IRUÑEA · 948 230 634

EZKURRA

OSPAKIZUNA → MARTXOAREN 4AN

Giro polita izan da inauterietako ospakizunetan

62 lagun bildu ziren Barranka ostatuako bertso-afarian

Fernando ETXEBERRIA

Martxoaren 4an inauteri kolorez bete zen herria. Goizeko hamarretan hasi zen festa pilotalekuan, bertan bildu baitzen eskean ibili zen herritar taldea. Gehienak mozorrotuta zeuden eta trikitixaren laguntzarekin etxez etxe bideari ekin zioten. Oso harrera ona izan zuten etxeetan, jendeak pozik ireki zizkieten ateak eta batean eta zerbait edanda, aurrera segitzeko indarra hartzeko aukera izan zuten. 14:00ak aldera bukatu zuten itzulia. Arra-

tsaldean, lauak aldera, haurrentzako ipun-kontalari baten emanaldia egon zen eta baita jolasak eta txokolatada ere. Bien bitartean, gazte eta helduak baserrietan ibili ziren eskean. Gauean, Barranka ostatuan egin zen bertso-afarian 62 pertsona bildu ziren, herritarrak eta baita inguruko herrietakoak ere, Leitzua, Ezkurra, Eratsun, Saldias eta Zubietakoak. Mendizabal eta Telleriak bertso dotoreak bota zituzten eta Oihana eta Oihana trikitilarien eskutik dantzarako aukera ere izan zen. Instrumenturen bat jotzera animatu zen boluntarioren bat ere egon zen afalondoan. Goizeko laurak arte luzatu zen festa. Gogoan hartzeko modukoa izan da!



ARGAZKIAK: FERNANDO ETXEBERRIA ETA DORLETA PENA

Haur, gazte eta helduek primeran pasa zuten inauteri giroan.

FLASH

Ludoteka herritarren eskura

Udalak duela denbora dezente aipatu zuen herritarrentzako ludoteka bat sortzeko asmoa zuela. Eskolako beheitiko solairuan egin dute eta Betti Lan enpresak izan du lanak egiteko ardura. Udalak enkantera atera zituen lanak eta bera izan zen aurkeztu zen enpresa bakarra. Orain lanak bukatzen direnean, herritarrak bertara joatera animatu daitezela. Lokalak komunak eta kalefakzioa izanen ditu.

Artzapezpikuaren bisita

Martxoaren 27 eta 28an artzapezpikua etorriko da herrira bisitan. Ermitaren teilatuak konpontzeko duen beharraz solastu liteke agian berarekin...



UTZITAKO ARGAZKIA

Barranka osatua saritua izan da

Herritikien inguruko albisteak agertzen direnean, aunitzetan ez dira berri pozgarriak izaten. Zerbitzu eskasia, heriotzak... baina oraingoan berri pozgarria dugu emateko. Barranka ostatuak Booking sareak ematen duen erabiltzaileen iritzietan oinarritutako saria lortu du. 2016 urtean lortu litezkeen 10 puntuetatik 9 lortu ditu. Barranka ostatuan egon diren erabiltzaileen iritzi onak ditu oinarri puntuazio horrek. Zorionik beroenak herriko biztanleen partetik ere!

GIZARTEA → OTSAILAREN 28KO BILERAN

Orain artekoen eta datorrenaren errepasoa egin du zuzendaritzak

612,13 euroko suberabitarekin bukatu zen 2016 urtea

TTIPI-TTAPA

Otsailaren 28an Arkupeak Elkarteko zuzendaritza bildu zen eta azken hilabeteetako zenbait kontu errepasatu eta datozen hilabeteetan izanen diren ekitaldien inguruko erabakiak hartu zituzten.

Hasteko, aurten loteria kobratzeko egon diren arazoak berriro ez errepikatu eta prozesua errazteko, La Caixako edozein bulegotan kobratu ahal izateko aukera desberdinak aztertuko dira. Diru kontuak aipatuz, Nafarroako Kultura Fundazioari emandako 10.000 euroko diru-laguntzagatik eskerak ematea adostu zuen eta 2016 urteko aurrekontuak ere onartu zituzten. 462.255,96 euroko gastuak eta 462.868,06 euroko sarrerak egon dira eta horrebestez, 612,13 euroko suberabita izan da.

Bigarren seihilabete ko bidaiak ere adostu zituzten eta hiru irteera dira aipatu beharrekoak. Gaztela-Leonera lehenbizikoa, (Salamanca, Avila eta Segoviara) Ikemevoy agentzia arduratuko da bidaiaren antolatzeaz. Benidormera

bigarrena, Barcelo bidaiak antolatuko du eta hirugarrena Lanzarote-ra, Eroski bidaiak agentziak antolatuko duena.

Ikastaroak ere zehaztu dituzte eta urtariletik maiatzera bitarte, 10 ikastaro izanen dira. Ekitaldi garrantzitsuen artean, Dantxari-neako Euskal Kantuen Eguna aipatu behar da. Apirilaren 27an izanen dela iragarri dute eta 400 pertsonendako tokia izanen da. Esertzeko orduan arazorik ez egoteko, txartel guztiek eserleku zenbakia zehaztua izanen dute.

Ezin aipatu gabe utzi Portugalera bidaiak ere. Aurreikuspen guztiak gaintu dira eta 184 bazkide eman dute izena. Bidaia hau apirilaren 29tik maiatzaren 6ra egiteko asmoa zegoen baina denak elkarrekin joateko modurik ez dagoenez, bi txanda antolatu dituzte. Lehenbiziko txanda, apirilaren 18tik 25era izanen da eta 70 bazkide joanen dira. Bigarren taldea berriz, apirilaren 18tik 25era joanen da bi autobusetan. Bidaia antolatu dutenen ahaleginei eta lanari esker, guzti-entzako banakako lo-



UTZITAKO ARGAZKIA

Xabierren izan ziren elkarteko 110 bazkide

Urtetako ohiturari utsiz, 110 elkartekidek egin zuten Xabierren irteera. Meza eguerdiko hamabietan izan zen, segidan bazkaria eta gero Jose Angelekin dantzaldia. Nahi izan zuenak arratsaldeko nobenak entzuteko joateko aukera ere izan zuen. Jende asko bildu zen egun horretan Xabierren, baita desfilea egin zuten militarrek ere.

gelak lortzeko modua izan da. Aipatu behar da Portugalera bidaiak antolatu duen Ikemevoy agentziak arduradunak erran duela lanean daraman 30 urtean ez duela horrelako bidaiari talde handiarekin lan egin (bazkideren batek oraindik eta jende gehiago espero zuen aurren...). Krisia gaintzen ari eta diru gehiago dugulako ote da? Edo orain osasunez ongi gauden bitartean hobereana probestea dela uste dugu?



Ba al zenekien

Arkupeak Elkarteko Mus txapelketa martxoaren 16an jokatzekoa zutela. Hurrengo aldizkarian izanen duzue emaitzen eta sarrituen berria.

Sabaia Inmobiliaria

Salmenta - Alokairua - Aholkularitza
Bordak - Etxeak - Baserriak - Lokal komertzialak
Hiri eta landa-lursailak
Garajeak
Balorazioak
Salerosketa eta alokairuen kudeaketa

ORDUTEGIA
Astelehenetik ortziralerara 10:00-13:30 / 17:00-20:00
Larunbatetan 10:00-13:00

Eliza kalea, 22 DONEZTEBE
T. 948 451 337 | 685 153 665 | 667 275 013
sabaia@sabaiaimobiliaria.com
www.sabaiaimobiliaria.com

AGENTE ESKLUSIBOA
Seguros Bilbao

IBERDROLA
Bereziki arretarako gunea

Energia-ziurtagiriak
Lan egunetan
09:30 - 13:30
iberdoneztebe@gmail.com

URROZ

GIZARTEA → MARTXOAREN 5EAN ETA 11N

Sagardotegira ateraldi bikoitza egin dute gazteek

Astigarraga eta Urrietara ateraldiak egin dituzte bi asteburuz segidan

diotenez giro ederrean igaro zuten eguna. Horrez gain, aurreko asteburuan bertze ateraldi bat egin zuten, martxoaren 5ean. Hemen 10 lagun bildu ziren eta Astigarragako Akelele sagardotegira joan ziren.

Jaione ARIZTEGI

Pasatu da aurtengo sagardotegiko ateraldia ere. Aurtengoan, ateraldi bikoitza egin dute gazteek. Antolatuta zegoen ateraldia martxoaren 11n izan zen, eta 22 lagun Urrietako Altuna sagardotegira joan ziren. Azkenean, taxietan egin zuten buelta eta

Emakumeen bazkaria

Urtero bezala, aurtengoan ere bazkaria antolatu da herriko ostatuan emakumearen egunaren harira. Bazkaria larunbatarekin egin zuten eta emakume kua-drilla bildu zen. Seguru gustura egon zirela hauek ere!



ARGAZKIA: MAIDER AROZENA

Urrozko gazteak Urrietako Altuna sagardotegian.



ARGAZKIA: JAIONE ARIZTEGI

Emakumeek giro ederrean bazkaldu zuten Herriko Ostatuan.



Etxetresnak | Pareta-armairuak
Sukalde eta bainugelako altzariak



T. 948 450 925 | M. 677 525 292 • 677 525 324
Amezti zeharkarrika, 1 • DONEZTEBE

*Hemen da udaberria!
Zaindu zure burua!*

GIZARTEA → APIRILAREN 3AN, 22:30EAN

Korrika pasatuko da hamar urteren ondotik

Herriko kilometroa erositako dago

Markel LIZASOAIN

Ez da oraintzekoa Korrika herriko azkeneko pasatu zenekoa; kaskoan ile gehixeko genuen eta, hortik atara kontuak. Erretratotegi begiratzen hasi, eta 2007ko martxokoak di-

ra. Orduan ere, kilometroa erositako zegoen, eta euskararen aldeko afari-lasterkaldia egiteko aitzakia paratu zuen. Al-di hartan, Doneztebetik etorri eta Orokitara joan zen, eta oraingo al-dian ere halaxen joanen da. Lagun kuadril batek hartua du herriko pasatzen den kilometroa. Apirilaren 3an igaroko da, 22:30ak airean. Ea



ARTXIBOKO ARGAZKIAK

Aurten ere egokiera afaritzo bat edo zerbait egiteko elkarrekin.

nork hartzen duen leku-koal!

Apuntatu kamerak eta atera irudi politikak!

geroko ere pixko bat oroit behar baitu.

ETXEBIZITZA BERRIAK DONEZTEBE

2 eta 3 gelako etxebizitzak terrazarekin



KOKAPENA
MOURGUES IBILBIDEA



135.000€tik aurrera
Informa zaitez

- ✓ Lehenengo solairuak TERRAZA-SOLARIUM-arekin
- ✓ Ekialde, hegoalde eta mendebalderantz begira
- ✓ Goi mailako aislamendu termiko-akustikoa eta efizientzia energetiko gorena
- ✓ Berogailu sistema mistoa galdara eta AEROTHERMAL energia berriztagarriarekin
- ✓ Trastelekua eta garajea
- ✓ Sukalde ornitua (aukeran)

Lokal komertzialak ere baditugu!



EZKAIN ERAIKUNTZAK
Inzakardi kalea 2/g | **DONEZTEBE**

629 951 170



BEINTZA-LABAIEN

OSPAKIZUNAK → OTSAILEKO AZKEN ASTEBURUAN

Giro ederrean joan dira inauteriak aurten ere

Bezperan mozorro desfilea egin zuten herriko eta Saldiasko eskolakoek

TTIPI-TTAPA

Eguraldi ederra lagun, giro onean pasatu dira aurten inauteriak. Bezperan, ortziralearan, herriko eta Saldiasko eskolek antolatua, mozorro desfilea eta hainbat joku antolatu ziren. Bertze aldetik, gauean, gazteak hasi ziren giroa berotzen afari batekin.

Larunbata egun handia izan zen: goiza gazteek gosari eder ba-

tekin hasi zuten. Ondoren, Labaienen etxez etxe puxkak biltzen ibili eta Iturrondo Elkartearen bazkaldu zuten. Bitartean, Beintzako Ostatuan 45 guraso eta haur bildu ziren bazkari eder baten inguruan, aurretik mozorro desfilea eta joku batzuk eginez. Arratsaldean, Beintzako Plazan denak elkartu ondoren, gazteak herriaren eta baserrietan ibili ziren. Haurrak eta gurasoak berriz, txokolate goxoa dastatzeko aukera izan zuten ostatuan. Gauean Elkartearen afaldu eta Beñat eta Fernandorekin Mariatxien giroarekin ordu txikitari luzatu zuten giroa, hurrengo urte arte!!



UTZITAKO ARGAZKIAK

Ortziralearan, herriko eta Saldiasko eskoletakoek ederki pasatu zuten (goiko argazkian). Gazteak eta gaztetxoak Beintzako plazan elkartu ziren (behean).

MARTXOAREN 31N

Korrikako afaria egingen dute Beintzako Ostatuan

TTIPI-TTAPA

Korrikaren 20. edizioa apirilaren 3an 22:30ean Saldiaстик pasatuko dela aprobetxatuz, 1002 kilometroa erosteko herri ekimena antolatu da eta martxoaren 31n, ortziralearan, herri afa-

ri bat izanen da Beintzako Ostatuan. Bertan kilometroa erosteko dirua bildu eta egunean bertan nola antolatu solastuko da. Izena emateko: Beintzako Ostatuan (948 450014), martxoaren 29a arte.

APIRILAREN 1EAN, BIDASOKO KONTRABANDISTAK ELKARTEAREN EKIMENEZ

Dena prest dago Hondarribian Lan Gauaren bosgarren ediziorako

TTIPI-TTAPA

Etxalar, Oiartzun, Erratzu eta Arantzan egin ondotik, aurten Hondarribian izanen da Lan Gaua, Bidasoko Kontrabandistak (KB) elkartearen ekimenez, apirilaren 1ean.

Gaueko ibilaldi gidatuan Arkotxa auzoan barna Guadalupea igo eta Kai Zarrean barna itzuliko dira, guztira 3 ordu eta 8 kilometro. Udaletxeko estalpetik abiatu eta Politenea baserriko Miguelen testigantza ezagutuko dute. Egund 79 urte ditu eta 14 urtetan ha-

si zen Miguel legarra gabaurretan garraiatzen Txingudiko badien. Lan horretaz baliaturik, batzutan zerbait gehiago pasatzen zuen...

Lan Gaua Bidasoako Kontrabandistak (KB) proiektuaren egitasmoa da, urtero gaueko ibilaldi baten bidez kontrabandista ohien testigantza eta bizipenak jasotzea du helburu.

Izen ematea (izen-abizena, tfnoa, e-maila eta herria): info@kontrabandistak.com
+INFO: 948 450 014



ARTXIBOKO ARGAZKIA

Joan den urtean Arantzan egin zen Lan Gaua ateraldia arrakastatsua suertatu zen eta jende aunitzek parte hartu zuen.

KULTURA → IRAKURZALETASUNA BULTZATZEKO EKIMENA

‘Irakurri, gozatu eta oparitu’ ekimena abiatu da Malerrekan eta Leitzaldean-Urumealdean



TTIPI-TTAPA

Martxoaren 20an hasi eta maiatzaren 31 bitartean gauzatuko da *Irakurri, gozatu eta oparitu* ekimena 52 herri eta eskualdetan. Aurtengoa inoizko kopururik altuena da. Ekimenak 11. edizioa du, baina lehenengo aldiz eginen da Malerrekan eta Leitza, Areso, Goizueta eta Aran non. Euskaltzaleen Topagunea eta Malerrekanako Mankomunitateko eta Leitza, Areso, Goizueta eta Aranoko Euskara Zerbitzuak dira antolatzaileak.

Ekimen honek irakurzaletasuna bultzatu nahi du, herritarrek euskarazko liburuak irakurtzera animatu nahi ditu, irakurtzearen alde atsegina azpimarratuz eta liburutegi publikoen zerbitzuen erabilera bultzatuz. Ekimenak parte hartzea saritzen du, liburuak erosteko abantaila ekonomikoak ematen ditu eta liburuak opari bihurtzera gonbidatzen du. Liburutegian jasotako erosketak, euskarazko beste edozein liburu %35 merkeago erosteko aukera emanen du.

Leitza eta Doneztebeko liburutegi publikoek parte hartzen dute ekimenean eta liburutegien dagokienez, Doneztebeko Ostiz liburu dendak, Leitza eta Areso aldean, Maimur eta Astitz liburu dendek eta Goizueta eta Aranoarako Hernaniko Elkar liburu dendak.



#erronkarakoprest

GURE IKASLEEN AHOTAN

Irati LAZKANO > (Leitza, 20 urte)

“Ikasteko metodologia berritzaile eta eraginkorra da”

Lehen Hezkuntza graduko 3. maila ikasten ari da hezkuntza bereziko ibilbidetik MONDRAGON UNIBERTSITATEko Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatean, Eskoriatzako campusean.

Zergatik aukeratu zenuen Lehen Hezkuntza gradua, eta zergatik MONDRAGON UNIBERTSITATEan?
Txikitatik izan nuen buruan maistra edo albaitaria izan behar nuela nik. Behin irakasle ikasketak egin behar nituela jakin nuenean, inguruetako unibertsitateez informatzen hasi nintzen. Egun batean, nire anaia Mondragon Unibertsitatearen berri zuela esanez etorri zitzaidan, interesgarria izan zitekeela. Herrian banuen unibertsitatean ikasten zuen ezaguna, eta hark hango berri eman zidan. Guztiz konbentzitu ninduen esan zidanak eta etxeko bultzadaz, batez ere anaia eta aitarenaz, nire ikasketak burutzeko toki egokia zela ondorioztatu genuen. Eta gaur egun... hementxe nago!

Nola definituko zenuke ikasteko metodologia?
Ikasteko metodologia bi hitzetan esanda berritzaile eta eraginkorra dela esango nuke. Lanketak egiteko orduan gai errealean oinarritzen gara, eta aldi berean, gure interesa pizten dutenetan. Horren ondoren, talde lan, hitzaldi, proiektu, teoria eta praktikaren arteko loturak, hausnarketak, bisitak eta ikerketak, besteak beste, eramaten dira aurrera. Azken batean, beste gauza askoren artean, irakasle prestatu eta sistema aldatzeko jantzia dagoena lortu nahi da, egun gizartean eta eskoletan bereziki aurkitzen diren oztopoei erantzun inklusibo bat emango diena.

Egindako proiekturen bat azalduko diguzu?
Hiru urtetan aurrera eramandako proiektuak asko izan dira, baina bat aukeratzekotan, material pedagogiko bat sortzearena hautatuko nuke. Diziplinartekotasunean eta konpetentzietan oinarritzen zen egutegi eta metodologia sortu genuen. Gela guztietan aurkitzen den aniztasuna oztopotzat baino aberastasun moduan ulertuta, bakoitzaren indargune eta ahulgunetan begia jarri eta horiekin lan egitea lortu nahi genuen. Modu horretan egotzari erantzun inklusibo bat ematea zen intentzioa, non haur guztiek beren gaitasunen garapen osoa eta ongizatea lortuko luketen. Hala ere, errealistak izanda, egia da horrelako proiektu bat gela barrura eramatea oso zaila dela gaur egun.

Praktikaldiak non eta zertaz ari zaren egiten kontatuko diguzu?
Aurtengo praktikak Doneztebeko San Migel eskolan egin nituen urte hasieran. Praktiken helburua irakasle profila ezagutzea zen besteak beste, eta horretarako gela barruan esku hartzeak diseinatu eta burutu behar izan nituen tutoreen laguntzaz. Mirenek eta Ernestok aukera eman didate irakasle profesioa nolakoa den ezagutu eta nire burua irakasle bezala ikusteko, nire iritzia aintzat hartuz uneoro.

www.mondragon.edu/prest



LEITZA

HITZORDUA → MARTXOAREN 22TIK 30ERA

Herriko eragile desberdinak bilduko ditu Ateka Asteak

Harribeltz rokodromoa larunbatean aurkeztuko dute

Juan Mari BARRIOLA

Atekabeltz Herrigunean biltzen diren herriko eragile desberdinen erakusle izanen da bigarren antolatutako Ateka Astea. Martxoaren 22an hasi eta 30era arte, ekitaldi ugari eta anitzak dituzte prest. Tartean, Atekabeltzeko ganbaran auzolanean egin duten Harribeltz rokodromoaren aurkezpena egingen dute.

Martxoaren 22an, 19:00etan eskaladaren inguruko bideo proiektioa izanen da.

Martxoaren 23an eta **29an** Leitzeko kontsumo taldeak eta Udalak elkarlanean antolatutako energia jardunaldien topaleku izanen da Atekabeltz herrigunea. Lehenbiziko saioan Ainhoa Intxaurrendietak 'Zenbat energia dago hondakinen atzean? Ekoiztu-botere eredu ezbaian' hitzaldia eskainiko du. Bigarren berriz, Sus-trai Eraikuntzako Xabier Zubialdek 'Garraioa

arazoa da? Posible da burujabetza energetikoa garraio eredu honekin? Garraioaren gako batzuk' hitzaldia eskainiko du. Bi saioak 19:00etan izanen dira.

Martxoaren 24an Iñaki Ziarrustak Bihotz salataria antzezlanatularatuko du, 22:00etan. Edgar Allan Poeren lanetan oinarritutako misterio eta beldurrezko ikuskizuna.

Martxoaren 25a Harribeltz rokodromoaren aurkezpen eguna izanen da. Umeentzako eskalada jokoak antolatutuzte 11:00etan eta 16:00etan Bulder txapelketa (izen-ematea 15:30ean). 20:00etan afari-merienda eta 23:00etan kontzertuak: Tocan2 la polla eta Nafarroa 1512.

Martxoaren 28an 19:00etan Askapena taldeko kideek 'Brigadatik herri boterea eraikitzen' hitzaldia eskainiko dute, 2017ko brigaden aurkezpena eginez.

Martxoaren 30ean 19:00etan Siriar errefuxiatuen inguruko hitzaldia eskainiko dute Chiosen boluntario egon diren Antonio Sagastibeltza eta Sagrario Lasartek.



Ba al zenekien

Udalak 2017ko aurrekontuak laburbiltzen dituen bideo bat osatu duela. leitza.eus web orriko albistean atalean ikus liteke.



ARGAZKIA: UDALA

Auzolanean moldatu dute eskola atzeko aterpea

Duela urte batzuk, 100 guraso inguruk umeei jolastu ahal izateko leku estali bat egiteko eskaera egin zuten. Behar horri erantzuna emateko Leitzako Udalak bilerare parte-hartzaileak egin zituen gurasoekin eta aukera desberdinak aztertu ondoren, eskolaren atzeko aldeko estalpea konpontzea adostu zuten. Estalpeak zituena itogin eta hezetasun arazoak konpontzeko 10.000 euro bideratu zituen Udalak eta ondoren gurasoen txanda etorri zen. Hainbat asteburutan auzolanean aritu dira txokoa atondu eta txukunduz eta martxoaren 13an estreinatu dute.



UTZITAKO ARGAZKIA

Herriko 23 emakumek parte hartu zuten Lilatoian

Berdintasun Batzordeak Lilatoian parte-hartzeko egindako deialdiak arrakasta handia izan du. Izan ere, irudian guztiak agertzen ez badira ere, 23 emakume leitzarrek egin dute korrika lasterketan. Zorionak neskek! Berrito ere korrikako oinetakoak janzteko aukera apirilaren 8an izanen dute Leitzako herri krosetan.



UTZITAKO ARGAZKIA

Jende ugari Kaxkabeltzako stock azokan

Herriko plazan egin ordez, Amazabal pilotalekuan egin zuten Kaxkabeltza elkarteak stock azoka eta hasiera batean martxoaren 4an soilik egitekoa bazuten ere, azkenean igande goizean ere zabalik izan zuten ateak. Erosketak egiten zituzten artean bi otordu zozketatu zituen elkarteak eta irabazleak Itziar Martinez eta Iñigo Goikoetxea izan ziren.

FLASH

Kantu bazkaria apirilaren 1ean

Aurrera elkarteak kantubazkaria antolatu du apirilaren 1erako. Bazkarirako txartelak Maimur eta Peritzan daude salgai, martxoaren 28ra arte. Giroa alaitzen Angel Mariezkuarena eta gonbidatuak ariko dira.

Herri krosa

Herri Krosa apirilaren 8an izanen da. Izen ematea www.kirolprobak.com helbidean edo egunean bertan.

GIZARTEA → EKAINAREN 18KO GALDEKETARAKO PAUSOA

Herri-galdeketa egiteko 1.423 sinadura bildu dituzte Mendialdean

Leitza, Goizueta, Areso eta Aranon 751 sinadura lortu dituzte

TTIPI-TTAPA

Mendialdeko Gure Esku Dago elkarteak bi hilabetetan 1.423 sinadura bildu ditu eskualdean herri-galdeketa egiteko. Joan den abenduaren 17an ekin zion elkarteak herriz herriko sinadura bilketari. Herri-galdeketa egin ahal izateko ezinbestekoa



ARTXIBOKO ARGAZKIA

Abenduaren 17an egin zuten agerraldia Mendialdeko Gure Esku Dagoko kideek.

zuen 16 urtetik gorako biztanleen %10aren babilera Leitza eta Lekunberrin eta %15 gainon-

tzeko udalerrietan eta kopuru horiek erraz lortu dira. Leitza 402 sinadura lortu dira (%16),

Areson 65 (%26,3), Goizuetan 240 (%37,6) eta Aranon 44 (%45,8).

Elkarteak bi hilabete

hauetan hasierako helburua bikoiztea lortu du eta ekainaren 18an Goizuetan, Aranon, Areson, Leitza, Larraunen, Lekunberrin, Araitzen eta Betelun euren etorkizuna erabakiko dute.

Elkarteko kideak pozik daude emaitzarekin, besteak beste jatorri, ideologia eta adin ezberdineko jendearengana iritsi eta guztiak ekimenean parte hartzea lortu dutelako. Kontzientzia dira oraindik ere herritar gehiagorengana iritsi behar dutela, baina emaitza honek ilusioa eta animoa areagotu du kideen artean.

ARESO

GIZARTEA → AUKERA DESBERDINAK AZTERTZEKO

Kontsumo taldeak herriko ekoizle eta kontsumitzaileen iritzia bildu nahi du

Inkestak egingo dituzte eta parte-hartzea eskertuko dute

Juana Mari SAIZAR

Egoera zein den jakiteko zuzenean galdetzea izatean da askotan hoberea eta halaxe egitea pentsatu dute herriko kontsumo taldekoek. Hasteko herriko nekazari eta abeltzainengana joateko asmoa dute. Zer

ekoizten duten, nola, produktuk horiek saltzeko aukeraz... hitz egingo dute beraiekin. Herrian bertan ekoizten denari garrantzia eman eta egiten duten lana ikustarazteko aukera desberdinak aztertuko dituzte. Horren ondotik, kontsumitzaileengana joko dute beraien kontsumo ohiturak, interesak, iritzia... bitzeko. Data zehatzik ez dute aipatu oraindik, Udalarekin bilerak egiten ari direlako, baina da-

tozen laister egin nahilukete. Etorkizunean ekintzak antolatzeko interesgarria da eta herritarren parte-hartzea eskertuko da.

Korrikaren aldeko ekimenak

Udalak Korrikari laiguntzeko kilometroa erosi du. Guraso Elkarrekin eta eskolak antolatzen duten Korrika ttikia berriz, apirilaren 7an izango da 16:00etan.

Udal idazkaria eta administratzailea

Udalak idazkaria eta administratzailea kontratatzeko asmoa zuela aurreratu genuen aurreko aldizkarian eta geroztik nobedadeak egon dira. Idazkaria kontra-

tatzeko deialdia bertan behera geratu da, aurreko idazkaria bueltan datorrelako. Administrazioa kontratatze deialdia berriz, laister argitaratuko du Udalak, interesa duena erne ibili dadila.



Ba al zenekien

Datorren ikasturtean 7 ikasle berri izango direla Nazabal eskolan. Hiru joango dira Leitza. Aurrematrikulazioa bukatu berri da eta ikasle kopuru polita izango da!

GOIZUETA

GIZARTEA → MARTXOAREN 11N

Zuzendaritza batzordea berritu du Umore Ona elkarteak

Bestalde, kitaldien bilduman aurkeztu zutenez, iaz 70 ekitaldi erregistratu ziren herrian

TTIPI-TTAPA

Umore Ona Elkarteak urteko batzarra egin zuen martxoaren 11n. Beste zenbait gairen artean, 2016 urteko kontuen eta 2017ko aurrekontuaren berri eman zuen eta komisioko kide erdien aldaketa ere eman zen.

Zuzendaritza batzordetik atera direnak Luis Lujanbio, Eva Elizegi, Nagore Berroeta, Manolo Aizkorbe, Julen Apezetxea eta Oxel Nazio Salaberria izan dira eta bi urterako lanera sartu direnak, berriz, Jose Luis Arozena, Lorentxo Zabala, Juan Ramon Iribarren, Luis Apezetxea, Xabier Taberna eta Jon Zabaleta

Bazkide berriak ere onartu zituzten eta aurtien Mikel Mujika izan da elkartearen sartu den bakarra.

Erabaki guztiak aho batez onartu ziren.

Ekitaldien bildumaren aurkezpena

Udalak 2016 hasieran jarri zuen martxan ekitaldien bilduma. Ekimen honen helburua Goizuetan dagoen kultur eskaintza zein den aztertzea eta hausnartzea da. Horretarako, 2016an zehar herrian antolatu diren ekitaldien balorazio orriak bildu ditu udalak antolatzaileen eskutik. Balorazio hauek udal artxi-boan erregistraturik geldituko dira. Baina horretaz gain, herriko eragileak eta hainbat herritar udaletxean elkartu ziren martxoaren 10ean eta 2016ko ekitaldien errebasoa egin zuten. Ze kultur eskaintza dagoen aztertzeaz gain, eskaintza hori nola hobetu aztertu zuten. Herritarrek beren proposamenak egiteko aukera izan zuten eta Udalak, ateratako ekarpenak jaso zituen. Herritar guztiengana iritsi eta beraien iritzia eta proposamenak jasotzeko ere, inkesta jarri du martxan www.goizueta.eus webgunean. Apirilaren 2 arte egongo da inkestara erantzuteko aukera.

2016an 70 ekitaldi erregistratu dira eta uda-



ARGAZKIAK: FELIX LOIARTE

Afaria eta ipuin musikatuak Emakumearen Eguna ospatzeko

Leitza, Goizueta, Areso eta Aranoko Gizarte Zerbitzuek antolatuta, Emakume Langilearen Nazioarteko Egunaren harira martxoaren 8an 40 bat emakume bildu ziren Umore Ona elkartearen giro ederrean afaltzera. Biharamunean, Amaia Elizagoien eta Olaia Inziarte baztandarren eskutik *Zazpiak oihal batetik* helduentzako ipuin kontaketa musikatu gustagarria izan zen Udaletxeko gantzeran.

laren asmoa, aurrera begira ere ekitaldiak erregistratzen jarraitzea da. Ekimenen bat antolatzen duten eragile eta norbanakoentzat udalaren webgunean dago ekitaldien bilduma orria eskuragarri, bete eta udaletxera bideratzeko.

Ardi eta behien subentzio kanpaina

Ardi eta behi edo txorren subentzio kanpainarako beharrezko diren ziurtagiriak Udaletxean eskatzeko epea martxoaren 27a bitar-

Ba al zenekien

Azienda Feria egunetik galdutako kartera bat gordea dutela Herriko Etxeko bulegoan eta ez dela jaberik azaldu. Dokumentaziorik ez du, dirua, argazkiren bat eta botikako paperak bakarrik

tean zabalik dago. Eskaera egiterakoan errolda agiria 3 urteko antzinatekin, herrian urtean gutxienez 9 hila-betez bizi denaren eta bakoitzak dituen lurren zinpeko aitortpenak eta Udalarekin zorrik ez duenaren, azinda kopuruaren eta nagusiki abeltzaintzan edo nekazaritzan aritzen de-

naren ziurtagiriak aurkeztu beharko dituzte.

Euskal Herriko mus finalean

Fermin Narbartek eta Mertxe Uitzik Euskal Herriko mus txapelketaren finalean parte hartuko dute larunbatean Anoetan. Nafarroako finalean, Iruñean, 131 bitotetatik 14. izan ziren.

GIZARTEA → APIRILAREN 1EAN, 17:30EAN ELIZONDON

Landa eremu bizi eta esne sektorearen defentsan manifestazioa deitu dute

Hainbat sindikatu, eragile eta elkartetek

TTIPI-TTAPA

Landa eremu bizien eta nekazaritza iraunkorraren bidean, esne sektorea ere bizirik behar dugu goiburuean apirilaren 1erako Elizondon egingen den manifestazio deialdia egin dute Baztan-Bidasoaldeko hainbat sindikatu, gizarte eragile, elkarte eta erakundek. Horien ordezkari, Aitor Azkarate aniztarrak, Marijoxe Iparragirre elizondarrak, Miel Joxe Ariztia amaiurtarrak eta Baztandarra Kooperatibako Santiago Urrutia presidentek, manifestazioarekin bat egitera deitu zuten martxoaren 4ko agerraldian.

Apirilaren 1etik Danonek Nafarroako mendialdeko 7 nekazariri (tartean eskualdeko lau) esne gehiagorik bilduko ez diela jakinarazi ondotik eta Sorian 20.000



UTZITAKO ARGAZKIA

Hainbat eragilek bat egin dute apirilaren 1eko manifestazio deialdiarekin.

behi buruko esne ustiatzea egiteko proiektua dagoela jakinik (lehenago Caparrosen, 5.000 buruko inongo zalapartarik gabe egin zuten), esne sektorearen etorkizunaz kezka handia piztu da. «Azkeneko hamarraldi luzeetan nekazaritzan orohar eta esnegintzan partikularzki industria eta banatzaile handien neuriko ereduak bulkatu dute. Produktibista, intentsiboa eta industrialia. Hala, gure mendialdeetako nekazariak aldiro estutuz,

aterabiderik gabeko atakarat eraman dituzte, bat ere erabakitzeko ahalmenik gabe, produkzio kostuetarat ailegatzen ez diren prezioekin, dirulaguntzei buruzko menpekotasunarekin, inbertsio handiekin eta lan-baldintza gorroekin», diote.

Agerienez, orain artioiko bideak nekazaritzarik gabeko landa eremuak ekarriko dituela uste dute manifestazioaren deitzaileek: «Zazpi nekazari hauek bizi dutena ez da arazo parti-

kularra. 20.000 behi buruko esne ustiatzearen egitea esne-sektoreko nekazarien arazo partikularra ez denez. Jendarte osoari: landa eremuari eta hiriguneari eragiten dioten arazoak dira. Landa eremuak bizirik atxekitzeaz ari baikara, elikadura osasuntsua eta kalitatezkoa kontsumitzeko eskubideaz; edozein herrik bizirauteko beharrezkoa duen elikadura burujabetzaz». Horregatik herriar guztiei zuzentzen zaitzaie, «zazpi nekaza-

ri hauek orain -baina bihar gehiago izan daitezkeenak- bizi dutenari eta 20.000 behi buruko ustiatzeak geroari buruz ekarriko duenari ez errateko. Baina landa-eremuen etorkizunari bai errateko. Lurrari lotutako nekazaritza iraunkorra, enpleguaren sortzailea eta herri ttipiak bizirik atxekiko duena bulkatzeko. Gure inguru eta bazterrak zainduko dituen, duina eta bizi-kalitatea ekarriko duena».

Guzti horregatik, nekazarien eta kontsumitzaileen arteko aliantzak bulkatu behar direla uste dute: «Landa-eremuen eta hiriguneeen artekoak. Langileen eta baserriarren artekoak. Ez gara bi gorputz, bakarra baizik. Batek min badu, gorputz osoa erida. Ez oraingo kinkari, bai, landa eremu biziei eta bizitzari justuari. Karrikara atera gaitezen, gaur aski errateko eta, bihar, bideragarria den nekazaritza eta jendarteredu justua eraikitzeko».

ola
SAGARDOTEGIA
www.olasagardotegia.eus
102 Meaka auzoa · 20304 IRUN · Tfnoa 943 623 130

Bertako sagarrarekin egindako sagardoa
250 lagun eserita
Klimatizatua
Sagardotegiko menua
TXOTX GARAI A IREKIA

Pierresenea
OSTATU · JATETXEA
Jaki tipikoak · Etxeko giroa
Iturriotz auzoa · Tfnoa: 948 592 043
ORONOZ · MUGAIRI

ANZABAL INMOBILIARIA



- Zurich Aseguruak
- Autoa, etxebizitza, istripu eta bizitza aseguruak
- Lan aholkularitza
- Nomina eta Aseguru Sozialak
- Aholkularitza fiskala
- Errenta Deklarazioa, BEZa...
- Inmobiliaria
- Baseri, borda, pisu, etab. salmenta eta alokairua
- Gestoria

Santiago, 15 • ELIZONDO • T./F. 948 580 804
anzabal@anzabal.com • www.anzabal.com

BAZTAN

GIZARTEA → NAFARROAKO GOBERNUKO URAREN ZERBITZUKO ARDURADUNEKIN ERE BILDU DIRA

Uholdeei aurre egiteko larrialdi plana onartu du Balleko Etxeak

Erratzu, Elbete, Elizondo eta Oronozerako bortz alarma maila desberdin finkatu dira

TTIPI-TTAPA

2014ko uholdeek utzitako kezak bulkatu Udalak bailaran izaten diren iberroei buruzko larrialdi plana egin du. Planaren helburua dauholdeengatik mehatxatutako populazioa babesteko eta ahal dela kalteak arintzeko, udalak eta herritarrek informazio, aurreikuspen, alerta eta ekintza dispositibo etengabea izatea. Honela, Erratzu, Elbete, Elizondo eta Oronozerako bortz alarma maila finkatu dira eta, horien arabera agintari eta herritarrek neurri desberdinak hartu beharko dituzte. Alarma mailaren arabera fitxak ere egin dira datu publikometrikoak eta



UTZITAKO ARGAZKIA

Elizondoko Zahar Etxeko sukaldeko teilatua konpondu berri dute

Elizondoko Francisco Joaquin Iriarte zaharretxeko sukaldearen teilatua konpontzeko lanak akitu berri ditu Udalak. Lan hauen helburua sukaldeko itezurak eta hezetasunak konpontzea zen. Horretarako txapazko teilatua aldatu eta zapaldu daitekeen estaldura paratu da. Bertzalde sukaldearen barnean sabai edo tetxoan zeuden orbanak garbitu eta margotu dira. Lanek 17.623 euroko kostua izaten dute eta Putxiria S.L.k egin ditu, Udalak bailarako enpresa desberdinei aurrekontu eskaera egin ondotik eskaintza hoberena egin baitzuen.

uraren emaria kontuan hartuz egin beharreko ekintzak definitzen dituztenak. Planaren idazketak 6.000 euroko kostua izan du eta Tracasa enpresak egin du. Orain hori guztia aplikazio informatikoan eta komunikazio sisteman bihurtu behar da.

Helburu horrekin, otsailean Joseba Otondo alkatea eta Mikel Ortega zinegotzia Nafarroako Gobernuko Uraren zerbitzuko arduradun eta teknikariek bildu ziren eta larrialdi plana ezartzeko behar den sistema informatikoa eta komunikazio siste-

ma garatzeko konpromisoa hartu zuten. Horretarako H2O Gurea programako dirulaguntzak baliatuko dira. Modu berean Uraren Zerbitzuak gonbidaturik, Mikel Ortega udaleko zinegotziak uholdeak maiz izaten dituen Irungo Behobia auzorat

egin zen bisitan partehartu zuen eta kalteak prebenitu eta arintzeko egiten dituztenak ikusi ahal izan zituen.

Bertzalde, Kantauriko Konfederazio Hidrografikoari zuzendu zaio Udala, Elizondoko Giltxaurdi zubiaren begia karrakatzeko eskatuz.

FLASH

Udaberriko kontzertua

Etxarri Aranazko Abesbatza Tikiak eta Elizondoko Abesbatza Tikiak kontzertua eskainiko dute hilaren 25ean, larunbatean, 18:00etan Arraiozko elizan.

Gas eta argindar fakturaz solasean

Gasa eta argindarra, kontsumitzaileen eskubide eta aukerak solasaldia antolatu dute Iratxe Kontsumitzaile elkarteak eta Udalak martxoaren 30ean Arizkunenean. 12:15ean gaztelera eta 19:00etan euskaraz. Fakturak eramatea aholkatu dute.

Helduendako antzerkia Iruritan

Xake produkzioak taldearen Mami Lebrun antzezlanaren doan ikusgai izanen da apirilaren 2an, 19:00etan Gilzarte Bilgunean.

L **AUTOESKOLA**
INDURAIN

Pedro Axular, 2 | T. 948 580 179 - 650 519 052 | ELIZONDO **BAZTAN**

Probextu Aste Santua!

- Testak egiteko gelan irakaslearen laguntza izanen duzu
- Testak on line egiteko aukera
- Ikastaro trinkoak
- Klase praktikoetan, Iruñerako ibilbidea doan gidatuko duzu



KULTURA → MARTXOAREN 24 ETA APIRILAREN 7AN

Historiari buruzko hitzaldi zikloan bi saio gehiago

Haraneko etxeak eta kaparetasunaz ariko dira

TTIPI-TTAPA

Kasino Elkarteak eta Etnografia Museoaren Elkarteak antolatuta, Baztango Haraneko historiari buruzko hitzaldi

zikloaren baitan *Baztango haraneko etxeak. Nola osatu ziren Baztango herriak eta baserriak* so-lasaldia eskainiko du Jose Maria Imizcoz Beunzak martxoaren 24an, ortziralean 20:00etan Elizondoko Kasinoko ekitaldi aretoan.

Apirilaren 7an, leku eta ordu berean, *Baztan-go kaparetasuna: no-*



UTZITAKO ARGAZKIA

Elizondoko Zahar Etxeko sukaldeko teiltua konpondu berri dute

Emakumearen Egunaren inguruko ekitaldiak akitzeko, *Bizentaren lumak* solas jolasa egin zuten martxoaren 10ean Elizondoko Foru plazan, Udaleko Berdintasun Batzordeak antolatua. Institutuko 20 gazte inguru gerturatu ziren eta bertzeak bertze transexualitatearen eta maitasun erromantikoaren inguruan hitz egin zuten.

bleziaren historia eta Baztango haraneko armarriak hitzaldia eskainiko du Imizcozek. Sarreran borondatez ematen dena Xauli elkartearen alde izanen da.

Jose Maria Imizcoz Euskal Herriko Unibertsitateko historia modernoko irakaslea da. Parisiko Sorbonako Uni-

bertsitatean Baztango historiari doktoretza-tesia defendatu zuen eta egun Euskal Herriko Unibertsitateko ikerketa talde bat zuzentzen du.

BAZTAN TTIPI TXARTELA

Erakutsi eta probestu aukerak!

ALMACO BAZTAN
IGANTIA

%5 %10
DESKONTUA EDO OPARIA Galdetu dendan

T. 948 58 01 04 | ELIZONDO
www.almacobaztan.com

ARGIBEL
PTIKA

ESKAINITZA
Betaurreko graduatu pare bat erosterakoan, graduazio bereko bertze pare bat doan

Santiago, 86 | ELIZONDO
T. 948 58 13 91

Beatriz
Kosmetika eta osagarrietan

%5 DESKONTUA Kosmetika eta osagarrietan
%5 DESKONTUA laserrean eta gorputz-aurpegi tratamenduetan

Santiago, 53 | ELIZONDO
T. 948 58 02 83

BIOK BAT
TAILERRAK

%10 DESKONTUA Baterietan, olio aldaketa eta frenoetan

Santiago, 85 | ELIZONDO
T. 948 58 08 98

FOTOMENA

%10 DESKONTUA kopia digitaletan

Santiago, 44 | ELIZONDO
T. 948 58 01 55

EZ

%10 DESKONTUA produktuetan

Santiago, 15 | ELIZONDO
T. 948 58 04 91

Giltxaurdi
Udal Kiral Instalazioa

%5 DESKONTUA neguko denboraldian zehar 10 eguneko abonoan

Giltxaurdi, 38 | ELIZONDO
T. 948 45 23 01

Gureaut
TAILERRAK

%10 DESKONTUA baterietan

Datuegibela, 10 | ELIZONDO
T. 948 58 02 25

IPINGI

%10 DESKONTUA 30€tik gorako erosketetan

Santiago, 130 | ELIZONDO
T. 948 58 09 39

liberpress
liburutegia

%10 DESKONTUA liburu eta ikas materialietan. Testu liburuak eta DVDak izan ezik

Jaime Urrutia, 43 | ELIZONDO
T. 948 58 09 02

POSADA ELBETE

%10 DESKONTUA kartan, 30€tik gora bartela duenari

Karrikaundi, z/g | ELBETE
T. 948 58 15 19

SANSIÑENA
CITRINER

%5 DESKONTUA olio aldaketetan

Santiago, 37 | ELIZONDO
T. 948 58 04 06

t tipi-ttapa

%10 DESKONTUA eskeletan

Koskontako bidea, 7-1. | LESAKA
T. 948 63 54 58

Zentru berria
Homeopatia, Kiromasajea, Polaritatea, Dietak ...

%10 DESKONTUA kontsulta-terapiari

Santiago, 58 | ELIZONDO

BAZTAN

GIZARTEA → MARTXOAREN 10EAN

7.382.531 euroko aurrekontua onartu du Udalak

EH Bildu eta Ezkerrarekin batera, Auzolaneaneko zinegotziak alde bozkatu zuten Geroa Baik abstentziora jo zuten eta UPNk kontra bozkatu zuten

TTIPI-TTAPA

Martxoaren 10ean egin zen ez ohiko osoko bilkuran Baztango Udalak 2017ko aurrekontuak onartu zituen, EH Bildu (4), Ezkerra (2) eta Auzolaneanen (1) aldeko bozkekin. Geroa Baik (2) abstentziorat jo zuten eta UPNk (4) kontra bozkatu zuten. Aurrekontua 7.382.531 euroko izanen da.

Aurtengo aurrekontuei buruz gastu arruntaren atalean herrietako eskoletako garbitzailleen plegu berria hornitzeko izan den 47.000 euroko hazkunde aipagarria da. Hazkunde horrekin sektoreko hitzarmena bermatuko da. Bertzalde arkitekto tekniko berriaren kontratazioak 35.400 euro-

ko igoera ekarriko du. Kontu bat eta bertze gastu arrunta osotasunean %0,38 igan da. Urtez urte ikusi ahal izan denez, eta 2016 ere horren erakusgarria da, udaleko gastu arruntaren egiturak Baztango beharrak neurri handian asetzeko balio du. Alde batetik azpiegitura publikoaren mantentimendua: herrietako eskolak, mediku kontsultategiak, bideak, kirol instalakuntzak, argiteria, garbiketa... Bertzetik, ongizate gizarte aitzinatutako bati dagozkion eskubideak eta zerbitzuak: gizarte zerbitzuak, berdintasuna, euskara, kultura... Eta, gainerakoan, sustapen arlo desberdinak: turismoa, azokak...

SARRERAK JAITSI

Betiere, aurtengoan sarreretan jaitsiera izan da, hirigintzari lotutako sarrerak %1,55 jaitsi baitira. Jaitsiera hau koiunturala edo egiturazkoa ote den ikusi beharra dago, horren arabera, aurrekontuen egituraren egin beharreko moldaketak desberdintza izanen baitira.

Gauzak horrela, aurtengo 339.653 euroko inbertsioak egingen ditu udalak. Horien artean



UTZITAKO ARGAZKIA

Haziaren egun jendetsua egin dute Lekarozen

Gero eta errotuago dagoen Haziaren Egunaren aurtengo ospakizuna Lekarozen martxoaren 11n egin zuten. Deialdiari erantzunez, gaian interesaturiko hamarnaka jende bildu ziren, iaz Erratzun egindako saioari segida emanez. Eguerdi aldean, giro eguzkitsua eta atseginaren arrimuan, eskola ireki berriaren aitzinaldean, haziak trukatzeko paratutako mahaian gisa guztietako haziak elkartrukatu ahal izan ziren: banabarrak, artoa, kalabaza... Eta adin desberdinetako jendeak, herrikoak eta eskualde guztikoak, haziei buruzko kezka berezuekin eleketa gozoan aritu ahal izan ziren. Egunaren muina hazien elkartrukea izanagatik, goizean Elutseko mindeitza komunalean fruta-arbolen neguko txerto ikastaroa egin zuten. Ruth Peña eta Iban Larratxearen eskutik harat hurbildutakoek amu teknikak ikasi ahal izan zituzten, bai betiko moduan: behi kaka, buztin eta trapuarekin eta ore komertzial eta zinta aislantearekin ere bai. Eguna borobiltzeko Jakoba Errekondoren mintzaldi jendetsua egin zen. Usurbildarrak eskolarat bildutako berrogei lagunengatik kezka eta gelderei jakintza handiarekin erantzun zien. Aurtengo Haziaren eguna Baztango agroekologia eskola herritarren baitan egin da, Hazitik Hoziek eta Legate elkarteak antolatutik. Haziaren eguna urtero herriz aldatzeko hartutako erabakiaren ondotik, aldiro jende desberdina bildu eta inplikatzeko ahalmena erakusten ari da eta, horren bidetik, bertako haziak berreskuratu eta ez galtzeko kezka neurri batean jendarteratzen. Agroekologia eskolaren egitarauaren barnean, martxoaren 17an, Jo ala Jok antolatutik bertako sagardoaren dastaketa ere egin zen Arizkongo Gamioxarra dolarean, enologoaren laguntzarekin.

aipagarrienak Baztan Marka 36.300 euro (%70 diruz lagundua), Arizkongo eskolako lehorra 30.000 euro, mendiko lanak 154.500 euro (%50 diruz lagundua), Agozpeko zentralaren ubidearen konponketa 16.000 euro, bideen horningoiztatze eta breaztatzea 34.100 euro...

Bertzalde, zorraren amortizaziorat 650.000 euro bideratuko da. Aurtengo aurrekontuetan zorra diru-sarrera arrunt guztien %74koa izanen da, iaz %80koa zen.

Ikusten denez, urtetik urtera oinordetzan hartutako zor handia ttipitzen ari da. Eta, gaur egun, legeak emandako %110eko gehieneko mugaren azpitik dago. 2010ean %135koa zen. Udalak zorra ttipitzen segitu nahi du, baina behar delarik, ongi justifikatutako inbertsioak egiteko maileguak ere eskatuz. Gaur egun zor bizia 5.368.965 eurokoa da.

Azkenik, diruzaintzako-gerakina edo erremanentea 1.100.000

eurokoa da. 2016ko kontuak hesterakoan horren zati bat bertze inbertsioak egiteko erabiltzen ahalko da. Nolanahi ere, gobernuko taldeak diruzaintzako-gerakina eta maileguak eskatzeko ahalmena Nafarroako Gobernurat aurkeztutako Toki Inbertsio Plana finantziazteko erabili nahi luke. Deialdi horretarat 5.000.000 euroko inbertsio programa aurkeztu du (herrietako sa-neamenduak, bideak...).

Sartu
gure web berrian
WWW.SILOTITE.COM



www.silotite.com

Silo bolak egiteko plastikoa

- Edozein belar klasetan erabilgarria
- Aukeran 500 mm eta 750 mmtan
- Zulatzeko gogorra eta tiramenduetarako sendoa
- Elastikotasun ezin hobea
- Memoria elastiko bikaina
- Ongi itsekitzen dena
- Baldintza atmosferiko guztietan erresistentzia onekoa eta UV egonkortasun handikoa
- Ingurumenarekin erasokorra ez den plastikoa



SILOTITE
by formipac



Silotite®. Segurtasunaren aukera

AROZ-BERRI, S.A.

irurita@arozberri.com - Pol. Zaldubia NA-8307, km 0,8 - 31730 IRURITA (Nafarroa)
Tel. 948 581 021 / 948 580 258 - Faxe 948 452 103 - www.arozberri.com

BAZTAN

OSPAKIZUNAK → MAIATZAREN 6AN ELIZONDON

50. urteurrena egun osoko bestarekin borobilduko du Lanbide Eskolak

Kalejirak, argazki erakusketa, bazkaria, musika...

TTIPI-TTAPA

Elizondoko Lanbide Eskolak urriaren 13an 50 urte bete zituen eta egun horretan ospakizun xume bat egin zen. Ikasturtean zehar ere zenbait ekitaldi egin dituzte eta oraingoan, berriz, maiatzaren 6an egun osoko festa eder bat egiteko asmoa dute ikasle, langile eta irakasle ohi eta orain aridiren guztiek.

Eguna hasiera emateko 10:00etan txalaparta eta aureskua izanen dute. Ondotik, kalejira joaldun eta txistulariek. 11:30ean eskola irekiera egingen dute



ARGAZKIA: JUAN MARI ONDIKOL

Ikastetxearen mende erdia ospatu zuten 2016ko urriaren 13an.

Baztango dantzariak. Argazki erakusketa eta bisita gidatuak ere izanen dituzte eskolan. 12:00etan pilota partida jokatu da eta 13:00etan Gaztelu abesbatzaren emanaldia. 14:30ean bazkaria izanen da eta ondoren

Ba al zenekien

'Esklerori anizkoitzarekin bizi' solasaldia eskainiko dutela Nora Goñi eta Leire Tejedo fisioterapeutek apirilaren 6an, ortzegunean 19:00etan Arizkunenea Kultur Etxean

bertsolariak eta trikitalariak ariko dira. 17:30etik 20:30era Oharkabe tal-

dearekin dantzaldia izanen da. Egun osoan zehar ostatua izanen da.

TXARTELAK SALGAI HERRIZ HERRI ETA WEBGUNEAN

Egun horretarako txartelak 35 eurotan salgai daude Donezteben (Titi ostatua eta Ostiz estankoa), Beran (Xuga ostatua), Elizondon (Mendi ostatua eta Lanbide eskola), Erratzun (Iparla ostatua), Iruritan (Olari jatetxea), Leitzan (Beatrizenea jatetxea) eta Lesakan (Legarra estankoa eta Xagu liburudenda).

Bertze aukera bat, ikasleek egun honetarako sortu duten <https://50urtezelanbidean.wixsite.com/elizondo> web orrian agertzen den kontu korrontean ordainta egin eta maiatzaren 6an ordaintetaren justifikantea eraman eta txartela eskuratzea da. Egun ederra izanen dela, ez dago dudarik!

AURTENGO GAUPASA MAIATZAREN 6AN IZANEN DA LARRAINTZARREN

Bazkide kanpaina berriari ekin dio BRT Menditarrak errugbi taldeak

TTIPI-TTAPA

Azken urteotan bezala, BRT Menditarrak taldeak bazkideak bereganatzeko lanarekin segitzen du eta bertan parte hartu, lagundu eta elkarlanean dabilzan guztiak eskertu nahi ditu. Bazkide txartelaren eguneratzeko eta proiektu honara gehitu nahi duen oro erakartzeko ordua iritsi da. Bazkide txartela 2017 urterako baliagarria izanen da eta hiru bazkide mota daude (babelea, laguna eta txiki) bakoitz bere prezio eta onurekin.

Honela, bazkide txiek 5 euro ordaindu beharko dute eta opari sorpresa jasoko du-

te. Bazkide Lagunak 15 euroko urteko saria ordaindu beharko du. Horren truke, partiden ondorengo hirugarren denboretan BRTetxe elkartean pintxo, garagardo, edo tragoxka musu-truk hartzeko aukera izanen dute, zelaiko tabernan tragoxkak merkeago, BRT taldeak saltzen duen materialean eta taldeak antolatutako bidaia eta ekintzetan deskontuak, taldeari buruzko informazio zehatza eta eguneratua whatsapp edo email hartzeko aukera eta urteroko Ultzamako gaupasarako sarrera debalde izanen dute. Aurten maiatzaren 6an izanen

da besta. Bazkide Babesleak, berriz, 30 euroko urteko saria ordainduz, onura horiek guztiez gain, urteroko festako afaria debalde izanen du, baita taldeak egiten duen bazkideen batzarretara joateko eskubidea ere.

2016an ere bazkide zirenek eta bazkide izaten segitu nahi dutenek BRT-ri adierazi beharko diote (brt@baztanrt.com helbidera idatziz, whatsapp edo sms bidez 619196780 telefonoan, edo taldeko bitartekoari erranez) eta berehala jasoko dute txartel berria. Harpidetza utzi nahi dutenek ere bide beretik adierazi beharko dute.



ARTXIBOKO ARGAZKIA

Errugbia lantzen segitzen du BRT Menditarrak taldeak.

APIRILAREN 1 ETA 8AN

Emakumeen autodefentsa feminista tailerra prest

TTIPI-TTAPA

Emakumeendako autodefentsa feminista tailerra egingen dute apirilaren 1ean eta 8an, larunbatetan 09:30etik 13:30era (guztira 8 orduko tailerra) Arizkunenea Kultur Etxean. Baztango Bilgune Feministak antolatu du tailerra, Baztango Udalaren laguntzaz eta izen-ematea martxoaren 27a baino lehen egin behar da 650 729639 telefonora whatsapp edo mezua bidaliz edo ba2feminista@baztan.eus helbide elektronikora idatziz.

ERASO SEXISTEN IDENTIFIKAZIOA

Eraso sexistak: identifikazioa eta protokoloaren lanketa egingen dute maiatzaren 5ean (ortziralea) 19:00etatik 21:00etara Berroetako elkartean eta maiatzaren 12an (ortziralea) 19:00etatik 21:00etara Arizkungo medikuaren etxean. Baztango Bilgune Feministak antolatu ditu tailerrak, Baztango Udalaren laguntzaz eta izen-ematea 650 729639 telefonora whatsapp edo mezua bidaliz edo ba2feminista@baztan.eus helbide elektronikora idatziz egin daiteke. Berroetako tailerrera-ko maiatzaren 2a baino lehen eman behar da izena eta Arizkungorako maiatzaren 8a baino lehen.

GIZARTEA → MAIATZEAN LEHIAKETARA ATERATZEKO ASMOA DU UDALAK

Auzoetarako ur-hornidura lanak udan hasiko dira

1,7 milioi euroko aurrekontua izanen dute eta Europako FEDER Funtsak, Nafarroako Gobernuak eta Udalak ordainduko dute

TTIPI-TTAPA

Auzoetarako ur-hornidura proiektuko lanak uda honetan hasteko asmoa du Urdazubiko udalak, berriki bizilagunei eta Baztango Udalar jakinarazi dienez. Lanen aurrekontua 1.720.646 eurokoa da (gehi BEZa).

Joan den abenduan VS Ingeniería y Urbanismo enpresari esleitu zitzaion proiektuaren garapena eta lanak egiteko lehiaketa maiatzean hasiko da. Otsondon mila metro kubiko dituen ur-biltegia eraikitzeaz gain, auzoetako biltegiak ere egokituko dira eta hauen arteko kanalizazioa ere egingen da.

Proiektu honekin, Urdazubiko Udalak auzo guzietako ur-hornidura segurtatu nahi du datoren 25 urterarako. Biltegi nagusia eta kanalizazio gehiena Baztango lurretan daude, baita Urdazubiko bizilagun batzuen lurretan ere, eta hauekin solasean hasiak dira, lanek zer era-



UTZITAKO ARGAZKIA

Emakumearen Eguna sagardotegian ospatu dute

Ugarana Emakume Elkartek afora antolatu zuen martxoaren 10ean. Urteroko ohiturari eutsiz, Gipuzkoarako bidea hartu zuten elkarteko kideek eta Pe-tritegi sagardotegira herriko 19 emazte hurbildu ziren, elkartek antolaturiko autobusean. Giro ederrean ibili ziren.

gin izanen duten infor-matzeko.

Abuztuan hasi gogo dituzten lanekin ur-hornidura arazoak akitzea espero dute. Erraterako, azken udan Alkerdi auzora ura zisterna-kamioietan eraman behar izan zuten, idortearen eraginez.

Gogoratu behar da maiatzean H2O-Gurea mugaz gairako proiektua onartu zela eta egitasmo honetan parte hartzen du Urdazubiko Udalak, bazkide gisara. Egitasmo honen Hegoaldeko zatia dagokio Urdazubiko ur-hornidura proiektuari, 984.320 euroko aurrekontuarekin. Zati honen %65a Europako Eskualde Garapenerako Funtsetik (FEDER) ordainduko da,

EGOERA

25

URTERAKO auzo guzietako ur-hornidura segurtatu nahi du Udalak proiektu honekin.

%25a Nafarroako Gobernuak eta %10 Urdazubiko Udalak. Gainerako 736.363 euroak, auzoetako biltegiak egokitze eta kanalizazioak egiteko erabiliko da eta Nafarroako Gobernuaren eta Urdazubiko Udalaren artean ordainduko dute.

H2O-GUREA MUGAZ GAIKIDIKO PROIEKTUA

H2O-Gurea proiektua Agglomération Sud

Pays Basque erakundeak gidatzen du eta bazkide gisara daude, Urdazubiko Udalarekin batera, Gipuzkoako Al-dundia, Uraren Euskal Agentzia, Servicios de Txingudi S.A, eta Gestión Ambiental de Navarra (GAN) erakundeak. Horrez gain, Nafarroako Gobernuaren, Adour-Garona Ur Agentzia eta Pirinio Atlantikoen Departamentuaren babesak dauka. Proiektu honekin, edateko uraren hornidura segurtatzeaz gain, uholde-arriskuen aitzinean kudeaketa bateratu egin eta Bidasoa, Urdazuri eta Uru-mea ibaien kalitatea hobetu nahi da eta bazkide bakoitzak bere lana dauka.

ZUGARRAMURDI

GIZARTEA

GERTAKARIA → MARTXOAREN 2AN

Herrigunetik hurbilen dagoen Ainara mendiari su eman diote

Mendiaren mazela kixkali da baina etxebizitzarik ez da kaltetu

Josebiñe eta Koro

Neguan gertatzen diren madarikazio bat sufritu genuen joan den martxoaren 2an: Ainara su eman zioten.

Ilundu eta luze gabe gertatu izanen zen seguraski gauerdirako garrak indar-indarrean ageri baitziren. Guztiz ikusgarria zen eta kea eta usaina garbiki sumatzen ziren herrian.

Berez kaltegarriak baldin badira kontrolik gabeko suteak, kasu honetan larriagoa izan da, herritik hurbilen dugun mendixka delako Ainara, eta bere magalean lau etxebizitza daukelako. Zorionez, hai-zearen ufadak bertze aldera egin zuen eta sugarrak ez ziren etxeetara ailegatu. Etxebizitzak onik suertatu dira baino ekialdeko mendix-



ARGAZKIA: GONTXU GARMENDIA

Sugar handiak eta kea eta usaina garbiki sumatzen ziren herrian.

karen mazela, kanpamentuen aldera, kixkali egin da.

Pala txapelketarako izen-ematea zabalik

Pala pilota txapelketako izen-emateko epea ireki da. Interesa duenak Marixan ostatuan eman beharko du izena apirilaren 15a baino lehen. Ondotik, antolatzaileek egingen dituzte

bikoteak, eta maiatzean hasiko dira partidak (larunbat arratsaldez jokatuko dira). Finala, beti bezala, bestetan izanen da, Andre Mari egunean.

Xareta Eguna ekainaren 25ean

Urtero herriz-herrri ibiltari den *Xareta Eguna*, aurten Zugarramurdin ospatzea tokatzen

da. Joan den martxoaren 3an lehenbiziko bilkura egin zen, eta bertan Xareta Eguna ekainaren 25ean (igandea) egitea adostu zen. Programa ez da oraindik guztiz itxi, baina segur dena da bazkari bat egingen dela. Beraz, markatu gorritz egun hori egutegian, inguruko herritar guztiok elkartuta, besta ederra izanen da eta.

NAFARROAKO GOBERNUAK

Kontsultategiak eraberritzeko dirulaguntza deialdia egin du 5 urte eta gero

TTIPI-TTAPA

Nafarroako Gobernuak 500.000 euroekin finantzatu ditu aurten kontsultategiak eraberritzeko, handitzeko edo hobekuntzak egiteko lanak. Instalazio horien titular diren toki erakundeek eskatu ahal izanen dituzte dirulaguntza horiek; guztira, 234 dira Nafarroako kontsultategiak. Azken bortz urtetan ez zen deialdirik egin.

Honako lan hauek finantzatzera bideratuta daude laguntzak: kontsultategiak handitzeko lanetara, hau da, eraikinean azalera handiagoa eraikitzeko lanetara; aurrez dagoen azalera eraberritzeko edo birmoldatzeko lanetara; azalera handitzea eta dagoena eraberritzea aurreikusten duten lanetara; kontsultategiaren eraikinaren instalazioak egokitzeko edo hobetzeko jarduketara txikiak; eta egituraren segurtasunarekin, iturgintzarekin, saneamendurarekin, oztopo arkitektonikoak kentzearekin, teilatuekin, fatxadekin eta kanpoko arotzlanekin lotutako lanetara, betiere, ez badaude mantentze-jarduera gisa sailkatuta.

Laster argitaratuko da Nafarroako Aldizkari Ofizialean eskabideak aurkezteko epea.

tanatorios
IRACHE

24 ORDUKO TELEFONOA
948 581 959 | 948 637 404

BERA (SAN JOSE) | BERA (ITURLANDETA)
DONEZTEBE (SAN PEDRO) | ELIZONDO (BAZTANDARRA)
ELIZONDO (BAZTAN) | LESAKA

TRASLADOAK IRUÑA, DONOSTIA ETA IRUNGO OSPITALETATIK EDOZEIN HERRIETARA

LOREAK, HILARRIAK, ESKELAK ERRAUSKETAK ETA ZERBITZU OSAGARRIAK

JATETXE-ERRETEGIA
MONTXO
OSTATUA · TABAKO-DENDA

Egunero irekia
09:00etatik
02:30era

Dantxarinetatik
2 km. tara

PLATER KONBINATUAK · OGITARTEKOAK
MENUAK ENKARGUZ · PINTXOAK
ESPEZIALISTAK ARRAIN ETA TXULETOIAN

ANZAN-BORDA · URDAZUBI | 948 599 039
montxoblanco@gmail.com

GIZARTEA → KORRIKA ETA SARA TRAIL

Euskararen alde eta zoingehiagoka korrika egiteko hitzorduak

Korrika apirilaren 2an, 23:47an sartuko da herrian San Inazio lepotik

Joana GERENDIAIN

Martxoaren 30ean, 20. Korrika Otxandiotik (Bizkaia) abiatuko da eta 11 egunez gau eta egun Euskal Herrian barna ibiliko da Iruñerat ailegatzeko apirilaren 9an. Aldi hunetan ere, Korrika Saratik pasako da apirilaren 2an, igande gauean, 23:47an hain zuzen ere. Azkainetik etorriko da San Inazio-ko lepoa jautsiz eta gero Senpereruntz joanen da. Euskarari duten sustengutxoak erakusteko he-

rriko elkarteek 5 kilometra erosi dituzte 200 euroko prezioan baxotxa, horretarako elkartu egin dira. Parte hartu nahi dutenek beharko dira kilometroen panoen ondoan egon, lehenik bizkarrekoa erosteko eta gero korrian hasteko. Panoak egun batzuk lehenago lotuak izanen dira.

Sara trail eta mendi martxa

Martxoaren 26an Sarako lasterketa elkarteak 12. Sara korrika trail antolatuko du. 22 kilometrako lasterketa honek 1.595 metroko desnaila positiboa du. Korrikalariak goizeko 9etan abiatuko dira plazatik, Larrun aldera joateko, puntu gorena 873 me-



Goiko argazkian, Korrika Saratik pasatu zenean 2013an. Behean, Sara Korrika Trail iaz. ARTXIBOKO ARGAZKIAK

trotan da Larruneko ardigian, gero Olhaineruntz jausten dira eta plazan bukatzeko.

Duela zenbait urte orain, egun berean mendi martxa bat antolatzen dute ere, 15 kilometra-koa, ibiltariak korrikalariak sustengatzen ahal dituzte kontrako zentzuan ibiltzen baitira. Martxarentzat izen

emaiteak egunean be-rean egiten dira goizeko 7etatik goiti, 5 euroko parte hartzea galdegina da. Abiatzeak 07:30 eta 08:30 artean egingen dira plazatik.

Kirol emaitzak

Martxoaren 4 eta 5ean, eskubaloian neskek 21-19 irabazi zuten eta errubian basur-

deek 22-0 galdu zuten. Martxoaren 11n, eskubaloian 3 ekipek galdu zuten 36-21, 13 urtez azpikoentzat; 24-15, 15 urtea azpikoentzat eta 25-12 mutikoentzat; beste 2 ekipek irabazi dute 18-12, 18 urte azpikoentzat eta 27-17 neskoentzat. Errubian 22-0 irabazi dute Amouren kontra.



**LEIHOAK / KONTRALEIHOAK
SARRERAKO ATEAK / ITXITURAK
PERTSIANAK / MOSKITERAK**

Ordoki ind. ARIZKUN / T. 948 453 259 / F. 948 453 423
betikopvc@betikopvc.com / www.betikopvc.com



**BETIKON LEIHOAK
NEURTU, FABRIKATU eta
INSTALATZEN DITUGU**

PVC-zko sistema bakarra*
Passive house ziurtagiriarekin
BETIKON daukagu.

6 kamara 82 mm-ko profila
Merkatuko isolamendurik
hoberena.

A+++

* 70 mm



GIZARTEA

EUSKARA → KORRIKA

Apirilaren 3an pasako da Korrika eskualdetik

Gauerdian Azkainetik Sarara sartuko da eta arratsalde ilunabar aldera Baigorritik Erratzura joanen da

TTIPI-TTAPA

Batzuk lelopean martxoaren 30ean hasiko da aurten 20. edizioa beteko duen Korrika eta apirilaren 9ra bitartean, Euskal Herriko

zazpi herrialdeetan barrena 2.535 kilometro eginen ditu euskararen aldeko lasterketak.

Bilbon bukatu zen duela bi urteko Korrika, eta Bizkaian hasiko da oraingoa, Otxandion eta Iruñean bukatu. Baina tartea horretan eskualdeko herri batzuetatik pasako da. Apirilaren 3an, gauerdian Sarako lurretan sartuko da euskararen aldeko lasterketa, eta handik Senpere alderako bidea hartuko du. 01:00 baino pixka bat lehenxeago ailegatuko da Senperera. Gero Maule aldera



ARTXIBOKO ARGAZKIA

Eskualdeari kuku eginen dio aurten ere Korrikak.

joanen da Korrika eta Zuberoa utzi eta berriz Nafarroa Beherean sartuta, Baigorritik Baztan aldera abiatuko da. Apirilaren 3an berean, 18:20 aldera Erratzutik pasako da Korrika eta Elizondora joanen da gero. Oronoz utzita Doneztebera 21:00 alderako ailegatuko da. Doneztebetik Iturenerako bidea hartuko du, eta Zubietatik Saldiasera sartuko da. 22:30 alderako Saldiasera ailega-

tuko dela aurreikusitu dute antolatzaileek. Saldias izanen da eskualdean Korrikaren lekukoa ibiliko den azken herria, handik Orokietan barrena Ultzamarako bidea hartuko baitu.

'Batzuk' leloa du 20. Korrikak; 'bat' eta 'zuk' hitzak elkartu dituzte. Honela azaldu dute Korrikaren antolatzaileek: «hizkuntza, kultura, mundu 'bat' sendotzeko bidean, 'zuk' ere bat egin dezakezu, zeure-

tik, zeure hizkuntz aberastasuna eta kultur aniztasun unibertsalabizi ditzazun: ikasiz, erabiliz, ahalbidetuz».

ESKUALDEAN BARRA APIRILAREN 3AN

Sara: 00:06
Senpere: 00:56
Erratzu: 18:22
Elizondo: 19:19
Ornoz-Mugairi: 20:15
Doneztebe: 20:54
Ituren: 21:20
Zubieta: 21:45
Saldias: 22:30

*Gu sortu ginen enbor beretik,
sortuko dira besteak,
borroka hortan iraungo duten
zuhaitz-adaxka gazteak,
Maite zaitugu.
Zure familia.
Miesker gure ondoan izan zareten guztiei.*

ANASTASIO GUILLENEA GOYLENECHE
Elizondon, 2017ko martxoaren 10ean,
87 urte zituela

Clara Aicega Echabe
1921-09-29 / 2017-03-06

Laurogeita hamabost urte
Bizi dituzu lurrean
Ama-amonan paperak
Betetzen zuk egunean.
Zutabe agertuko da
Zure irudia gurean
Antzematekoa baita
Zure bizitza osoa.
Guretzat izar bat zara
Disdiratsuen zerruan
Zoriona bila ezazu
Egunceroko bizitzan
Zaindu gaitzazu zuk hortik
Kemena behar denean
Beti egongo baitzara
Gu guztion bihotzean.

Javier IGOA OTXOTEKO
Lesakan, 2016ko apirilaren 2an
I. URTEMUGA

Beti irrifarrea zenuen lagunmin gauza denen gaintetik aitzinerat ekin bizitzari helduaz gogo guzietan indar hau utzi duzu betiko gurekin maite izan zaitugun familiarekin.

ETXEKOAK

EZKONTZAK

Ez dago datu berririk.

Norbaitek bere datuak sortze eta ezkontzen atalean agertzea nahi badu, 948 635458 telefonora deitu beharko du.



*Juanito Zozaya Goñi
1938-8-13/2017-2-10*

ZURE FAMILIA

Egun gogor hauetan gure ondoan izan zaretan eta gure saminarekin bat egin duzuen guziet, mila esker

SORTZEAK

Luhai Juanena Maskotena, Urdazubikoa, otsailaren 27an.

Ane Lizardi Garzia, Berakoa, martxoaren 1ean.

Mattin Barberena Bidegain, Elbetekoa, otsailaren 19an.

Izar Genua Agirre, Leitzakoa, otsailaren 11n.

Ainara Genua Agirre, Leitzakoa, otsailaren 11n.

Eneko Telletxea San Sebastian, Berakoa, otsailaren 24an.

Luken Lournagarai Perotxena, Arraiozkua, martxoaren 8an.

Joanes Telletxea Alkorta, Zugarramurdikoa, martxoaren 3an.

Janire Otxoteko Mihura, Zugarramurdikoa, martxoaren 9an.

Haizea Castro Aldalur, Lesakakoa, otsailaren 24an.

Eder Calderero Rodriguez, Lesakakoa, otsailaren 25ean.

Ane Calderero Rodriguez, Lesakakoa, otsailaren 25ean.

Ugutx Altzuri Loiarte, Sunbillakoa, martxoaren 8an.

Ander Zelaieta Zunzarren, Doneztebekoa, martxoaren 8an.

Teva Picq Gaona, Sarakoa, otsailaren 22an.

Norbaitek bere datuak sortze eta ezkontzen atalean agertzea nahi badu, 948 635458 telefonora deitu beharko du.

Rekordatorioak egiten ditugu



Nahi duzun argazki eta testuarekin prestatua

ttipi-ttapa

Koskontako b., 7 | LESAKA | 948 635 458

HERIOTZAK

Martina Gofi Mongaburu, Iruritikoa, martxoaren 1ean, 86 urte.

Martin Legazkue Zulaika, Sunbillakoa, martxoaren 1ean, 88 urte.

Juan Urrutia Ezkurra, Beintza-Labaiengoa, martxoaren 5ean, 71 urte.

Clara Aizega Etxabe, Saldiaskoa, martxoaren 6an, 95 urte.

Justo Jaurena Santxotena, Arizkundakoa, martxoaren 6an, 84 urte.

Maria Josefa Iturralde Irigoien, Elizondakoa, martxoaren 7an, 90 urte.

Jose Ignacio Fagoaga Altamira, Arantzakoa, martxoaren 9an, 87 urte.

Anastasio Gillenea Goienetxe, Elizondakoa, martxoaren 10ean, 87 urte.

Mari Carmen Lasa Iribarren, Elizondakoa, martxoaren 11n, 76 urte.

Kontxita Gartziaarena Baraibar, Ezkurrakoa, martxoaren 13an, 88 urte.

Leandro Fernandez Gomez, Berakoa, martxoaren 14an, 86 urte.

Juana Gofi Istilart, Gartzaingoa, martxoaren 14an, 93 urte.

Maria Jesus Zubieta Etxeberria, Erratzukoa, martxoaren 15ean, 87 urte.



Kontxita GARTZIARENA BARAIBAR

Martin Nobleren alarguna

2017ko martxoaren 13an hil zen, 88 urte zituela

Ezkurra

Zure maitasunak hezi gaitu eta hori gure barrenean erein duzu.

Muxuak ama. Ezkurratik zeruraino.

FAMILIA



Jesus ANSALAS ARRECHEA

«ARTXINTXE»

II. URTEMUGA

Etxalarren hil zen, 2015eko martxoaren 29an

Umorez eta alaitsu

egoten ginen elkarrekin,

eta oroitzapen ahaztezin horiek

beti geldituko dira gurekin.

ZURE FAMILIA



Juan Bautista URROZ EZKURRA

VII. URTEURRENA

Beran hil zen, 2010eko martxoaren 20an,
67 urte zituela

Gogorra da onartzea

gehiago ez zaitugula ikusiko

baina bizi garen artean

ez zaitugu ahaztuko.

EMAZTEA, SEME-ALABAK, BILOBAK ETA FAMILIA

*Bere aldeko meza martxoaren 26an, 12:30ean
Berako San Esteban elizan.*

PILOTA → MARTXOAREN 11N EZTEGARA PILOTALEKUAN

Bortziritako eskuz banakako pilota txapelketako finalak jokatu dituzte

46 pilotarik parte hartu dute 16. edizioan

TTIPI-TTAPA

Bortziritako eskuz banakako hamaseigarren pilota txapelketako finalak jokatu zituzten martxoaren 11n Berako Eztegara udal pilotalekuan. Denera 46 pilotarik parte hartu dute txapelketa honetan, Bortziritan entrenatzen duten pilotariak, zazpi kategorietan banatuak. Ikusle aunitz hurbildu zen Bortziritako pilotari gazteak ikustera.

Hauek izan ziren emaitzak:

Ttikiak: Xan Villamea (Bera), 13 – Loizate Goñi (Bera), 18

Umeak B: Ander Pagola (Bera), 18 – Amaier



ARGAZKIA: JOSE MARI TELLETXEA

Bortziritako buruz buruko pilota txapelketako txapeldun, txapeldun ordeak eta hainbat parte hartzaile.

Martinez (Lesaka), 9

Umeak: Beñat Bertiz (Hendaia), 18 – Aimar Otxandorena (Lesaka), 13

Kimuak B: Koldo Lakar (Bera), 7 – Oskitz Ma-

dariaga (Arantza), 18
Kimuak: Andde Mari-torena (Bera), 18 – Mikel Eizagirre (Arantza), 17

Haurrak B: Lander Etxenike (Igantzi), 18 – Aimar

Zamora (Igantzi), 12
Haurrak: Unax Villamea (Bera), 18 – Iker Etxebeste (Irun), 14

Txapelketan parte hartu duten pilotariak oroigarriak eta sariak ja-

so zituzten finalen ondotik. Sari banaketan izan ziren Ander Errandonea eta Iñigo Martinez Berako pilotari profesionalak eta Jon Olai-zola afizionatua.

PILOTA → XXVII. EDIZIOA

350 pilotari hasiak dira Josetxo Ezkurraren omenez

Sei kategoriatan banatuak

TTIPI-TTAPA

Doneztebeko Erreka elkarteak hogeita zazpigarren aldiz antolatutako Josetxo Ezkurra Memoriala eskuz banakako pilota txapelketako lehen jardunaldia jokatu zuten martxoaren 12an. Guztira 350 pilo-

tari ariko dira, sei kategoriatan banatuak Benjamin (56), alebin (80), infantil (64), kadete (64), jubenil (56) eta senior (40) mailako pilotariak parte hartzen hasiak dira txapelketan eta hau irakurtzerakoan, lehen bi kanporaketak ere jokatuak izanen dituzte. Finalak noiz jokatu diren ez dute zehaztua oraindik.



ARTXIBOKO ARGAZKIA
Josetxo Ezkurra zena.

ERREMONTA

Sagardoaren txapelketan hasiak dira zortzi bikote

TTIPI-TTAPA

Martxoaren 2an abiatu zen erremonteko Sagardoaren zazpigarren txapelketa. Bi multzotan banatutako lau bikote jokatzeko ari dira: Otaegi eta Ion (Petritegi), Urriza eta Azpiroz (Larregain), Etxeberria IV eta Etxeberria III (Gurutseta), Zeberio II eta Agirrezabala (Bereziartua), Ezkurra eta Aizpuru III (Altueta), Uterga eta Larrañaga (Gaztañaga) eta Ansa II eta Endika (Setien).

Multzo bakoitzeko lehenbiziko bikoteak final erditarako zuzenean sailkatuko dira eta bigarrenak final laurdenetarako. Hirugarren eta laugarren sailkatuek elkarren kontra jokatu dute final zortzirenetan eta partida hauen irabazleek jokatu dituzte final laurdenak. Finala apirilaren 29rako iragarri dute.

SOKATIRA → EUSKADIKO TXAPELKETA

Zilarrezko eta brontzezko dominekin bukatu du Beti Gaztek

Bigarren izan zen 600 kiloko kategorian eta hirugarren 560koan

TTIPI-TTAPA

Txapelik gabe, baina bi pisu arinenetan podiumera igoz bukatu du Lesakako Beti Gaztek Euskadiko goma gaineko sokatira txapelketako parte-hartzea.

600 kiloko txapela Lesakan erabaki zen martxoaren 4an eta lehen fasean puntu gehi-

en Beti Gaztek lortu zituzenez, bazuten etxean txapela janzteko itxaropenik. Baina ezin izan zuten eta azpitxapeldun izan ziren, Gipuzkoako Ibarren gibeletik. Bizkaiko Sokarrik osatu zuen podiuma. Lau garren postua Gaztedik eskuratu zuen, bosgarrena Lapurdiko Ñapurak-ek eta seigarrena Bizkaiko Murueta Ak.

560 kiloko txapelketa erabaki zen martxoaren 11n, Laukizen (Bizkaia) jokatu tako saio bakoitzean. Bertako Gaztedi taldea izan zen txapel-



XAGU LESAKA



ARGAZKIAK: XAGU-LESAKA ETA UTZITAKOIA

Beti Gazteko tirariak bigarren Lesakan eta podiumeko hirugarren kokan Laukizen.

peldun. Beti Gazteren kontra berdindu, baina gainerako tiraldi guztiak irabazi egin zituzten bizkaitarrek. Sokari izan zen bigarren, txapeldu-

nen kontra galdu baina gainerako tiraldi guztiak irabaziz. Beti Gaztek, txapeldunekin berdindu, txapeldun ordeekin galdu eta gainerako ti-

raldiak irabazi zituzenez, hirugarren izan zen. Murueta izan zen laugarren eta Berriozar eta Txantreak itxi zuten finaleko sailkapena.

ERREMONTA → 2016KO SARIAK

Uterga eta Endika saritu dituzte

Doneztebarra iazko aurrelaririk onena izendatu zuen Erremonte Fundazioak eta saldiastarra erremontelarik moldakorrena

TTIPI-TTAPA

2017ko erremonteen festa ospatu zuen Euskal Jai Berri Erremonte Fundazioak martxoaren 10ean Labriten. Koadro profesionalen, iaz gehien nabarmendu ziren erremontelariak saritu zituzten. Javier Urrizak jaso zuen 2016ko erre-



UTZITAKO ARGAZKIA

Xanti Utergak eta Endika Urrutiak ongi merezitako sariak eskuratu dituzte.

montelari onenaren saria. Xanti Uterga doneztebarrak lortu zuen aurrelaririk onenaren sa-

ria eta Ion Etxeberriak atzelarik onenarena. Erremontelari moldakorrenaren saria Endika Urru-

tia saldiastarrak jaso zuen eta promesaririk onenaren saria Xabier Azpirozek.

martxoak 23 - apirilak 6

Informazioa bidaltzeko: info@ttipi.eus edo 948 63 54 58

Dantzak



LESAKA | 207.04.02

Tantirudantzarekin Lesakako karrikak haur eta gaztetxo dantzariz beteak

Lesakako Tantirumairu Dantza Taldekoek gain, Gure Txokoakoek (Bera), Txori Txiki Dantza Eskolakoek (Zumaia) eta Gure Txerukoek (Getaria) parte hartuko dute. Herrian ibilitakoan, 12:00etan plazan bilduko dira.

Hitzaldiak



LEITZA | 2017.03.30

Chios Irlako kanpamenduetan dauden siriarrak errefuxiatuen egoera hizpide

Hitzaldi sorta antolatu dute Ateka Astearren baitan, eta horien artean, Sagrario Lasarte eta Anttonio Sagastibeltza leitzarrek siriarrak errefuxiatuen inguruko solasaldia eskainiko dute Atekabeltzen.

Tailerrak



MALERREKA | 2017.03.25

Autodefentsa eta maskulinitate tailerrak antolatu ditu Gazte Asanbladak

Autodefentsa tailerra Doneztebeko kiroldegian izanen da 09:00etatik 15:00etara eta maskulinitate tailerra Elgorriagako ostatuan, gizekoentzat, 10:00etatik 14:00etara. Emagin Elkarteak emanen ditu.

Hitzaldiak

DONEZTEBE

Literatur solasaldia**Miren Gorrotxategirekin****Martxoaren 23an** 33 ezkil

liburuaz 19:00etan

Liburutegian.

LEITZA

Energia jardunaldien eta Ateka Astearren barne Atekabeltzen

Martxoaren 23an *Zenbat energia dago hondakinen atzean? Ekoiztu-bota-erre eredu ezbaian* Ainhua In -txaurrandietarekin, 19:00etan.
Martxoaren 28an *Brigadetak herri boterea eraikitzen. Esperientziak eta 2017ko brigaden aurkezpena* 19:00etan Askapenaren eskutik.

Martxoaren 29an *Garraioa arazoa da? Posiblea da burujabetza energetikoa garraio eredu honekin? Garraioaren gako batzuk* 19:00etan Xabier Zubialderekin.

Martxoaren 30ean *Siriarrak errefuxiatuak Chios Irlako kanpamenduetan*, 19:00etan Sagrario Lasarte eta Anttonio Sagastibeltzarekin.

ELIZONDO

'Baztango haraneko etxeak. Nola osatu ziren herriak eta**Baztango baserriak?'****Martxoaren 24an** 20:00etan Kasinon.**'Gasa eta argindarra, kontsumitzaileen eskubide eta aukerak'****Martxoaren 30ean** Arizkunenean. 12:15ean gaztelaniaz eta 19:00etan euskaraz.**'Esklerosi anizkoitzarekin bizi'****Apirilaren 6an** 19:00etan Arizkunenean.**'Baztango kaparetasuna: nobleziaren historia eta Baztango Haraneko armarriak'****Apirilaren 7an** 20:00etan Kasinon.

Erakusketak

LEITZA

Eskaladaren inguruan**Martxoaren 30era** arte Atekabeltzen.

Tailerrak

DONEZTEBE

Autodefentsa tailerra**Martxoaren 25ean** kiroldegian, 09:00etatik 15:00etara.**'Drogez solasteko... izan ditzagun gauzak argi'****Martxoaren 28tik** apirilaren 4ra asteartetan, gurasoentzat. 14:40tik 16:00etara Mendaur Institutuko liburutegian.

ELGORRIAGA

Maskulinitate tailerra**Martxoaren 25ean** 10:00etatik 14:00etara ostatuan.

BAZTAN

'Bizi bat nola salbatu'**Martxoaren 28an** Arraiozen, 18:30ean.
Martxoaren 29an Gartzainen, 18:30ean.

ELIZONDO

Emakumeendako**autodefentsa tailerra**
Apirilaren 1ean eta 8an 09:30etik 13:30era Arizkune-

PROPOSAMENA

ESKUALDEA

Apirilaren 3an eskualdean barna ibiliko da Korrikaren lekukoa

Martxoaren 30ean Otxandiotik abiatuko da Korrika eta apirilaren 3an ailegatu da gure eskualdera. Gauerdian Sara aldean ibiliko da eta arratsaldean Izpegitik barna Erratzura sartuko da. Baztan aldean ibili ondoren, Donezteberako bidea hartuko du eta gero Zubietara joanen da, hemendik Saldiasera joateko. Apirilaren 9an bukatuko da Korrika, Iruñean.



nean. Izen-ematea martxoaren 27a baino lehen:
ba2feminista@baztan.eus
mezua 650 729639ra.

Antzerkiak

BERA

'Hotel Brasil'

Martxoaren 24an 19:00etan
Kultur Etxean.

LEITZA

'Bihotz salataria'

Martxoaren 24an 22:00etan
Atekabeltzen.

SUNBILLA

'Alicaté: la granola del amor'

Martxoaren 24an 19:30ean
Ulibeltzak Elkartearen.

IRURITA

'Mami Lebrun'

Apirilaren 2an 19:00etan hel-
duendako antzerkia Gizarte
Bilgunean.

Ipuin-kontalariak

BERA

'Hitzen lapikoa'

Martxoaren 31n 4 urtetik
aitzinerakoentzat, 18:00etan
Herri Liburutegian.

Kontzertuak

ARRAIOZ

Ahots kontzertua

Martxoaren 25ean elizan,
Etxarri Aranaz eta Elizondoko
Abesbatza Ttikiekin (18:00).

IRURITA

Haur gazte kantarien

VI. Topaketa

Maiatzaren 6an Josu Elber-
din musikariarekin. Izen-
ematea ikastetxeetan
apirilaren 13ra arte.

Zinema

ETXALAR

Katalina Erauso pastoralaren proiektzioa

Martxoaren 24an eta 31n
18:30ean Kultur Etxean.

Nire aukera



Patxi MARIEZKURRENA

Saltsa guztietan sartzen den eratsundarra

«Herriko haur asko entzuten ditut gaztelaniaz eta pena ematen dit»

Lanbidez irakaslea bada ere, «saltsa guztietan sartzen den eratsundarra» dela esanez aurkeztu digu Patxik bere burua. Lruñeko ikastetxe batean egiten du lan, eta astea han pasatzen badu ere, asteburu eta oporretan herrira etortzen da. Gainera, «etorkizunean Eratsunera bizitzera etortzeko asmoa» omen du. Denbora libre duenean ere «batez ere nire herrian egotea» atsegin du eta «lruñetik Eratsunera etortzeko gogo handia» izaten omen du. Kontatu digunez, gustuko txoko «asko» ditu Eratsunen, baina aukeratzen hasita «nire etxeko balkoia» aipatu du: «bertatik dauden bistak ederrak dira». Herrian gozatzeaz gain, lan egitea ere tokatzen zaio, zinegotzia delako. Baina ez da hori duen ardura bakarra, lantokian ere zuzendaritzan baitago: «saltsa gehiegitan sartzen naiz. Beraz, nahiko buruhauste izaten ditut». Aurkezpen gutxi behar duen Angel Mariezkurrenaren anaia da Patxi, eta etxean euskal kantu zaharrekiko zaletasun handia dute eta hori «ahozko transmisioagatik» dela uste du: «gurasoak eta osaba-izebak askotan entzun ditugu kantuan etxean. Eratsundarrek ere ohitura handia zuten festa eta inauterietako otorduen ondoren kantatzeko». Bidaiatzea ere gustuko duenez, «ateralditxo batzuk» egindakoa omen da: «orain gutxiago nabil, baina badut oraindik gogo leku batzuk ezagutze-ko». Kirola, aldiz, ez omen du «baterere» egiten. Dena den, hori ez da aitzakia beretzat Korrikan ez ateratzeko. Gustuko du euskararen aldeko lasterketan parte hartzea. «Hunkigarria» dela dio, eta «oraindik, zoritxarrez, beharrezkoa da. Euskararen normalizaziora-ko lan handia dugu oraindik egiteko. Gobernuak orain arte ez duenez askorik lagundu, horrela moldatu behar. Euskarak gure herrian duen tokia aldarrikatzen jarraitu behar dugu». Lankideek beti kilometro bat hartzen omen dute Nafarroako Hegoaldean eta dioenez, «osasuntsu nagoen bitartean eta beharrezkoa den bitartean jarraituko dut». Aurten ere bai: «eratsundarrek apirilaren 3an eginen dut eta martxoaren 31n Azagran lankideekin». Euskararen harira, beste kezka bat ere badu: «herriko haur asko entzuten ditut gaztelaniaz eta horrek pena ematen dit».

«Zoritxarrez, oraindik beharrezkoa da Korrika. Euskararen normalizaziorako lan handia dugu oraindik egiteko».

DONEZTEBE

Filma Zineman

Martxoaren 29an *Mako Makako eta Karibeko piratak*,
16:30ean.

URDAZUBI

'Gutik Zura' dokumentala

Apirilaren 1ean 20:00etan
Etxe Kulturalean.

Dantzak

LESAKA

Tantirudantza

Apirilaren 2an 10:00etatik
aitzinerara.

Azokak

SUNBILLA

Artisau feria eta gazta lehiaketa

Martxoaren 26an.

Ospakizunak

SUNBILLA

Asteburu kulturala

Martxoaren 24tik 26ra.

ELIZONDO

Haurren Eguna

Martxoaren 25ean

pilotalekuan.

Korrikari ongi etorria

Apirilaren 3an 16:00etan
Izpegiko lepoan.

Mendi ateraldiak

SUNBILLA

Suspirora bizikletaz

eta oinez

Martxoaren 25ean 08:30ean
plazatik abiatuta.

BAZTAN

Mendigoizaleen irteerak

Martxoaren 25ean Astigarra-
gara, 07:00etan Aurtiztik
abiatuta.

Apirilaren 2an Zirolara, Gar-
tzipotetik 07:30ean abiatuta.

SARA

Mendi lasterketa eta itzulia

Martxoaren 26an.

ETXEBIZITZAK

salgai

ORONAZ-MUGAIRI. Pisuua salgai, 90 m²ko azalera. Etxe mobleztatua, berogailua, igogailua eta trastelekuarekin. 3 logela, egongela, sukaldia eta bainugela ditu. 90.000 euro negoziagarriak. ☎948 585036.

ANZABAL

INMOBILIARIA

BAZTAN, BIDASOA, ULTZAMA eta IPARRALDEAN

- Pisuak, apartamentuak, partzelak, baserriak, bordak, lokal komertzialak eta nabeak salgai.

IPARRALDE eta BIDASOA alderdian

- Eskaintzagatik baserriak, bordak eta lurak behar ditugu.

URDAZUBI

- Etxe berri bat salgai, mobleztatua. 2000 m²ko lursailarekin.

DONEZTEBE

- **Aukera:** 102 m²ko pisua salgai. Egoera oso onean dago. 3 logela, jangela, egongela, 2 komun, sukaldia mobleztatua eta 17 m²ko trastelekuak.

Tel. 948 580 804

anzabal@anzabal.com

ELIZONDO. Akullegi karrikan 2 logelako pisua salgai. Prezioa: 57.900 euro. ☎646 774117.

SUNBILLA. 92 m²ko pisua salgai. Berogailua, igogailua eta garajeko marrarekin. 3 logela, 2 bainugela, sukaldia eta egongela. ☎639 156105.

ETXEBIZITZAK

errentan emateko

ETXALAR. Larrapil Sarri - ku auzoan etxe bat errentan emateko.



MERKATU TTIKIA

948 63 54 58

info@ttipi.eus edo erran.eus

SAIL HONETAN IRAGARKIA JARTZEKO 10€ ORDAINDU BEHAR DA ARGAZKIAREKIN JARRI NAHI IZANEZ GERO 12€ IRAGARKI BAKOITZEKO GEHIENEZ 25 HITZ ONARTUKO DIRA

TTIPI-TTAPA aldizkariaren 2 zenbakitan eta INTERNETen hilabete batez agertuko da

Ordainketak Rural Kutxako 3008 0080 56 0703304329 kontuan

TTIPI-TTAPAK ez du bere gain hartzen argitaratuak diren iragarkien ondorioz sortzen ahal diren operazioen erantzukizunik

tan emateko. Herriko bisita zoragarriak eskaintzen dituen toki paregabea. 3 logela, 2 bainugela, sukaldia, 2 egongela, despentsa eta trasteleku handiarekin. Oso eguzkitsua. ☎687 766971/672 153196.

BERA. 90 m²ko pisua duplexa garajearekin errentan emateko. Mobleztatua, 2 logela, 2 komun, haundia eta argitsua. Eraikuntza berria. ☎637 915158 / 630 457347.



LESAKA. Apartamentua errentan emateko. Herrian bertan. Logela bat eta igogailuarekin. ☎675 714360 / 639 509148.

ETXEBIZITZAK

errentan hartzeko

DONEZTEBE. Pisu haundia errentan hartu nahi da. 4 logelakoa edo hiru logela eta trastelekuarekin. Igogailuarekin. Eguzkitsua. ☎690 843948.

ETXEBIZITZAK

konpartitzeko

BERA. Konpartitutako pisuan logelak errentan emateko. Eztegarra 30 helbidean. ☎629 008081.

LANA

eskaintzak

On-line lanean aritzeko zerbitzariak, komertzialak, autonomoak edo bertzelako langileak behar dira. ☎699 382673.

Etxalar Hotelean **sukaldaria eta harreragilea** behar dira. Harreragilea izateko baldintza baka-

rra 4 hizkuntza jakitea izanen da: euskara, gaztelania, frantsesa eta ingelesa. Interesatuak bidali curriculumak: info@etxalar.com.

BERA. Lixoia ostatuan zerbitzaria behar da. ☎948 631271.

DONEZTEBE. Eroskitoki arraindegia zure kontura hartu nahi baduzu deitu. Hilabete batzuetan proba egin dezakezu. ☎948 456152.

URDAZUBI. Indianoa Baita ostatuan sukaldari-laguntzailea behar du eguerdian lan egiteko. Interesatuak bidali curriculumak: indianoa_txea@gmail.com.

ZUGARRAMURDI. Ostatu batean asteburuetan lan egiteko zerbitzaria behar da, euskaraz eta frantsesez dakiena. ☎948 599022 (10:00-17:00).

ELIZONDO. Juli ostatuan asteburuetan lan egiteko norbait behar dugu. Barra, sukaldia eta jangelan aritzeko. ☎647 650248 / 628 054435.

ELIZONDO. Bidegain Azokan emakumea behar dugu lanaldi osoz goizetan lan egiteko, asteartetik larunbatera. Beharrezkoak dira gida-baimena eta kotxea izatea. Interesatuak bidali curriculumak: info@pescadosbidegain.com helbidera edo deitu asteartetik larunbatera. ☎948 580496 / 606 585163.

LANA

eskariak

Gizonezkoa lan bila. Esperientzia lorezaintzan, mendiko lanetan, obretako peoi bezala, banatzaile bezala eta segurtasun begirale ere lan egindakoa. Lan horietakoren batean edo beste batean lan egiteko prest. Gaztelaz eta frantsesez hitz egiten du. ☎602 521136.

50 urteko emakumeak adinekoak zaintzen lan egiten luke, interna moduan. Esperientzia askokoa. ☎696 812598.

Emakumezkoa lan bila. Adinekoak zaintzen esperientziaduna. ☎631 379865.

Haurrak zaintzeko eta **adinekoak** orduka edo interna moduan **zaintzeko** lan bila. Haurrak eta adinekoak zaintzen es-

BASERRIA

DATU ITURRIA: NAFARROAKO GOBERNUA (martxoaren 3tik 10era bitarteko prezioak)

ZERRIKIA

Zerrikumea
(19 kilo): 63 €

Zerri gizona
1,218 € kiloak.

Zerramak:
0,760 € Kg/bizirik.

BEHIKIA

Aretze gizenak:
Idixkoak: €/kg. Kanal
Extra 4,19

1.koa 3,96
2.koa 3,78

Urruxak: €/kg. Kanal
Extra 4,27
1.koa 4,00
2.koa 3,83

Oharra: Prezioak 180-220 Kg. kanalean pisatzen duten aretzeenak dira.

Aretze tikiak
(15 egun ingurukoak):

Aretze mestizoak:
urruxak 160,00
idixkoak 228,00

Aretze nabarrak:
urruxak 140,00
idixkoak 180,00

Zaldikoak: €/k
Sortuberriak: 3,20/3,30
Zaldi-behorrak: 1,87/2,07

Bildotsak: €/k
6-8 kilokoak: 5,40/6,00
8-10 kilokoak: 4,70/5,20

perientziaduna. Langilea eta pazientziduna. ☎635 296717.

Haurrak zaintzen esperientziadun emakumea zonaldean haurrak zaintzeko lan bila. ☎651 648733.

ZERBITZUAK
zurgindegiak

ARANTZA
Zurgindegia.....

- Klase guzietako zurgin lanak
- Eskatu aurrekontuak konpromisorik gabe

Joxe Miquel Errandonea
Tel: 948 634 068 - 647 810 144
Gorritibaita - ARANTZA

ZERBITZUAK
denetarik

ROSA BELZUNEGI
PSIKOANALISTA

Kontsultarako eskatu ordua

☎ 948 272011 (IRUÑA)
☎ 948 580975

Jaime Urrutia 42-2.D - ELIZONDO

MOTORRAK
tailerrak

GANIX
Tailerra

948 63 06 69

Zalain Pol., 11 . BERA
EUROMASTER zegoen lekuan

MOTORRAK
salgai

Suzuki GS500E moto-rra salgai. 1991koa. ☎680 770682.

ANIMALIAK
oparitzeko

Sharpei arrazako 2 urteko zakurra oparitzeko, ezin delakoz atenditu. Etxe barruan hazi eta ohitutakoa. ☎636 557048 (Agustin).



Border Collie arrazako hiru urteko txakurra oparitzeko, herrian denbora luzez egoten baita bakarririk eta ezin dugu behar bezala zaindu. ☎606 885278.

ANIMALIAK
salgai

10 antxu latxa arrazakoak salgai. ☎676 340461 / 696 764669 (Deitu 20:30etik aurrera).

DENETARIK
salerosketak

Altairuzko sei fregadera salgai, 1,5 metro luze, forma borobildunarekin. ☎948 585036.

ORONOZ. Egurra xehetua salgai. Pagoa eta haritza. Etxera eramanen da. ☎676 242520.



ARANTZA. Taxi plaza salgai. ☎617 296458.

Bitrina hozkailua salgai. Egoera onean. Zabalera 1m, luzera 2m eta altuera 1,20m. 800 euro negoziagarriak. ☎610 500295 / 948 631536.



Beheko sua salgai. Egitura osoa, egurra, harria eta guzti. Hagitz egoera onean. ☎699 912159.




Gereziondo egurrezko **jangelako mahaia** hiru luzagarrirekin (116 cm -> 155 cm -> 195 cm -> 235 cm) eta **lau aulki tapizaturekin** salgai. Mahaia egoera ezin hobean dago. ☎617 055249.



Estufa industriala salgai. Gasolioa. Prezioa: 1.000 euro. ☎948 630669.



Logela osoa salgai. 2 ohe, mesanotxea, komo-



SANTESTEBAN TAILERRAK
Estreinatuta gabea!

21.700€ **KM 0**

KADJAR ZEN DCI 130 CV
Klimatizagailua, nabigatzailea, aparkatzeko sentsoa kamararekin, Farook "full led"

16.200€ **KM 0**

CAPTUR ZEN DCI 90 CV
Klimatizagailua, nabigatzailea, aparkatzeko sentsoa kamararekin.

17.800€ **KM 0**

MEGANE IV ZEN DCI 110 CV
Klimatizagailua, nabigatzailea, aparkatzeko sentsoa.

* Sustapen Inantzesos lotua

Leitzako errepidea **DONEZTEBE**
T. 948 450 282 - doneztebe@red.renault.es

da ispilurekin eta armairua. Materiala: pinua. ☎676 442544.

ETXALAR. Belar idorra fardo ttikitana salgai. ☎618 962774.

KATEA BIKE

2. eskuko bizikletak

Kanflonberri, 1 | BERA
T. 948 631 218
kateabera@telefonica.net

744 484 361

ttipi-ttapa

erran

Mendialdeko Albistek

TTIPI-TTAPA aldizkaria eta XORROXIN irratia elkarrekin eskuko telefonoan eta tabletan

ERABILI ETA ZABALDU EDUKIAK

- ERRAN.EUS web bertsioarekin denbora errealean sinkronizatua
- ZU ZEU KAZETARI: nahi dituzun in eta argazkiak bidaltzeko aukera en
- PERTSONALIZATZEKO AUKERA nahi den gai eta herrien arabera bilaketak egiteko aukerarekin

DESKARGATU APLIKAZIOA DOAN

PLAZAN BAZAN

MARIPURTZIL

PELOZIRI

Eooo! Hementxe gaude berriz ere!!!



Egilea: Garbine Ubeda (Aiurri)

ARROTZAK

Okindegi-
gozotegietan
saltzen ez diren
zortzi elementu
daude hemen.
Zeintzuk dira?

-
-
-
-
-
-
-
-

INTERNETEN ERE BAI !

<http://plazanbazan.eus/>



KIOSKOA
JOLAS-PARKEA
AZOKA
UDALETXEA
IKUSKIZUNAK

IPUINAK
KOMIKIAK
MARRAZKIAK



Kontsultatu soluzioak
plazanbazan.eus/kioskoa/soluzioak



ISPILUAREN AURREAN

Pelloziriren eta ispiluko bere islaren artean zazpi desberdintasun daude. Zeintzuk dira?

7
DESBERDINTASUN



HANDITIK TXIKIRA

Ordena itzazu panpina errusiar hauek tamainaren arabera: handiena lehena izanen da eta txikiena seigarrena



ITZALA

Zein da karramarro honi dagokion itzala?
Bakarra da zuzena



urtebetetzeak

Argazki soila: 5€; bikoitza: 10€


Ordaintzeko: 1) Bulegoan, dirutan; 2) Hegoaldetik postaz, 0,45€ko 12 edo 24 seilu. 3) Iparraldetik postaz, 5 edo 10 €ko txekea; 4) erran.eus bitartez




Etxalarko **MALEN INDABEREK** martxoaren 9an 6 urte bete ditu. Zorionak gure sorginari denon partezi! Batez ere Elaiaren partetik! Muxu pottolo bat!



Elizondoko **MALEN IPARRAGIRRE OTEIZAK** martxoaren 20an 4 urte bete ditu. Auniz urtez printzesa! Mila muxu etxekoen partetik.



Leizako **OIHAN BARAIBAR LOIARTE** gure etxeko biurritxo langileari zorionak 7 urte bete dituelako. Muxu asko etxekoen partetik.



Auniz urtez **KEMEN GARRO ORDOKI** lesakarrari, martxoaren 23an 6 urte beteko dituelako! Hartu familiaren partetik muxu zakukada eder bat monono!




Aurtizko **EKIÑE MINDEGIAK** apirilaren 2an 19 urte beteko ditu. Zorionak izeba eta muxu haundi bat zure hiru iloben partetik, Leiane, Naikari eta Xabat. Bazkari goxoa prestatu etxeko guziei, eta nola ez, bertze muxu pottolo bat anai-arreba eta gurasoen partetik.



Zorionak Erratzuko **IKER** eta **ENAITZI** martxoaren 11n eta 18an 14 eta 8 urte bete dituztelako. Erratzuko familiaren partetik eta bereziki Naroa, Haritz, Hodei eta Iraideren partetik musuak.



XUBAN ARREGI MUTUBERRIAK 2 urte bete ditu martxoaren 19an. Muxu pottolo bat etxekoen partetik, bereziki bere anaia Oian eta lehengusu Oinatzen partetik. Merienda goxoa prestatu.



BENAT ELIZONDO, ZORIONAK!!! 5 URTE. HONTAKUN ZURE TXANDAAAAA.



Narbarteko **IRAIA MARTIN ARGAINEK** martxoaren 24an 5 urte beteko ditu eta amaxi **KONTXIK** apirilaren 8an 67 urte. Zorionak familia eta bereziki Juneren partetik.



Berako **XUANE ALTZUGUREN** eta **IGONE IRATZOKIK** martxoaren 23an eta 12an 3 eta ez dakit zenbat urte, baina auniz, beteko dituzte. Zorionak eta auniz urtez Eñaut eta attatoren partetik.

hemen agertu nahi duzu?

argazki soila 5 EURO

argazki bikoitza 10 EURO

ALDIZKARIAN eta INTERNETEN



egin zure erosketa erran.eus en

Atera **TTIPI TXARTELA** hemen probextu aukera!

ttipi txartela

Josune Sorondo Odriozola
72673152-A
2019/04
372

ttipi-ttapa

Erabili **Ttipi txartela** pegatina hau ikusten duzun denda eta zerbitzuetan



Sekulako
giroa !!!

ANIMATU !!

APIRILAK 1

23:00

KONTZERTUAK

DOAN



ufes
tuer +
LAMIA

02:30

SARRERA 10€ + KONTSUMIZIO BAT



DJ NASH

APIRILAK 22 KINTO BESTAK

01:00

DJ ENDARA DJ NASH

SARRERA 10€ + KONTSUMIZIO BAT



2016 · ABENDUA



Liderrak

gure eskualdean

eta baita azterketa egiterakoan

CIESek Nafarroa Garaiko mendialdean

hartu duen 111 udalerrien eremuan ere



Ttipi-Ttapa

27.000 irakurle

DIARIO DE NOTICIAS	11.000 irakurle
DIARIO DE NAVARRA	10.000 irakurle
GARA	7.000 irakurle
BERRIA	2.000 irakurle
EL PAÍS	2.000 irakurle
MARCA	2.000 irakurle
EL MUNDO	1.000 irakurle
BESTE BATZUK	7.000 irakurle

Ttipi-Ttapa rekin

zure iragarkiak eragin haundiagoa du



SEXUAREN ARABERA

GIZONAK	%52,70
EMAKUMEAK	%47,30

ADINAREN ARABERA

14-24 URTE	%09,00
25-34 URTE	%12,70
35-44 URTE	%22,50
45-54 URTE	%16,30
55-64 URTE	%21,40
+64 URTE	%18,10

IKASKETA MAILAREN ARABERA

LEHEN HEZKUNTZA/GUTXIAGO	%30,40
OINARRIZKO BATXILERGOA	%13,50
GOI MAILAKO BATXILERGOA	%28,50
UNIBERTSITATEA	%27,60

Datu iturria: CIES, 2016ko bigarren neurketa

Ttapi Txartelarekin beti irabazten da!

DESKONTUAK, ZOZKETAK...

TTIPI-TTAPA ALDIZKARIA
MUSUTRUK

-%80ko DESGRABAZIOA
ERRENTA AITORPENEAN

Eskatu zurea: 948 63 54 58

Informazio gehiago:

TTIPI-TTAPA

Koarkontako bidea, 7 LESAKA

T 948 63 54 58 | F. 948 63 54 57

info@ttipi.eus | erran.eus

www.ttipitxartela.info

681

aleko irabazleak >



ZOZKETAK

Katxiporreta - CD bat

Gonzalo Errandonea Ganboa | SUNBILLA

Zugarramurdiko lezeak - 2 sarrera

Nahikari Uriarte Intxaurren | LEITZA

Lanku - Liburu bat

Jon Eskudero Irigoien | GARTZAIN

Lanku - Liburu bat

Santiago Telletxea Sarratea | DONAMARIA

Eureka! Zientzia Museoa - 2 sarrera

Antton Eskudero Perurena | GOIZUETA

Buatxabal - Kamiseta bat

Juanjo Neol Irigoien | ARIZKUN

Camelot Park - 2 sarrera

Ane Otxandorena Juanena | ELGORRIAGA

Erein argitaletxea - Liburu bat

Juana M^a Izeta Goñi | ELIZONDO

Erein argitaletxea - Liburu bat

Luisfer Etxeberria Salaberria | LIZARRA

2 sarrera



LESAKA

www.lesakakoudalkiroldegia.com

2 tiket



BKZ ABENTURA

www.navarraabentura.com

2 sarrera



IRRISARRI LAND

www.irisarriland.com

EUREKA! ZIENTZIA MUSEOA

www.eurekamuseoa.es



2 sarrera - Heldu bat eta gazte bat

ONDDO TA PUNTO

www.onddotapunto.com



Kamiseta bat


LA RHUNE

www.rhune.com/eu



2 sarrera helduentzat

LIBURUAK



- Odola

- Gatza

- Musua

Irati Jimenez

txalaparta

www.txalaparta.eus

LAGUNTZAI LEAK



www.txalaparta.eus



www.navarraabentura.com